



ANDONI SAGARNA: "INFORMATIKAZ GURE KULTURA BULTZA DEZAKEGU"

Arrasate

UPRESS

1996ko
abenduak 13
344. zenb.

Musika *eta* integrazioa

KULTURA: JUAN JOSE ALTUNA • 30 GALDERATAN: JOSEBA UGALDE
IRITZIA: OSKAR ELIZBURU • IKUSPEGIA: J. L. AZKARATE



ALTZARIAK **Berango**

*Zein da zure ideia?
Zenbat toki duzu?
Zein aurrekontu duzu?*

ROL SYSTEMen, espazioetara eta prezioetara egokitzen garen bezain ondo egokitzen gara zure ideietara.

ERAKUSKETA
Legarre Pabilloia, z/g
Gipuzkoa etorbidea
Tel.: 79 01 92



VENTANAS SAN MIGUEL

**Ventanas San Miguelekin...
Denean irabaziko duzu.**

Erosotasunean irabaziko duzu.

**Aurrezpenean eta energian
irabaziko duzu.**

Isolamenduan irabaziko duzu.

Konfortean irabaziko duzu.

**Iturriotz, 24
ARRASATE
Tel.: 79 78 10**



Eh, Pulitzer!

Egoztrismo hutsa ematen du, baina izenburu polita iruditzen. Gainera horrela gertatzen. Orain dela zortzi urte aldizkari honetarako "Biona"n interviu bat egin genionetik, berak beti Pulitzer deitzen dit. "Eh, Pulitzer", saludoa luzatu eta gero barre egiten du, umore onean baldin badago. Leopoldo María Panerok 1987an *Poemas del manicomio de Mondragón* idatzi zuen, titulu borobil honekin idazleak herri honekiko duen lotura erakutsiz. Iaz *Orfebre* kaleratu zuen. Ale bat erregalatu zidan dedikatoria honekin: "Para Guti, este libro que empieza por la demolición del alma". Beste poema-liburu bat ateratzekotan dagoela esan zidan lehengo batean.



J. L. Azkarate

"Berak pentsatzen du unibertsoa osoa bere kontra daukala eta, agian, arrazoia dauka"

Paneroren poemak onak dira, oso onak. Gertatzen da pertsonaiak berak itzala egiten diola bere obrari (hori ona ala txarra da?, ez dakit, baina idazle madrildarra malditismoz kokoteraino dago). Panero Arrasaten bizi da, Mondragoen, aspalditik. "La isla" deitutako leku horretara, badakizue, joaten da egunero lo egitera, askotan taxian.

Nik herri honetan pulpua garajian letxe ikusten dut. Inork ez dio kasurik egiten eta normalean bakar-bakarrik ibiltzen da, "kalian gora, kalia behera". Nik neuk ere urrunetik lurrera begira beti bezala datorrela ikusten dudanean, batzuetan eskinazoa ematen diot berarekin ez elkartzearen; eta Pulitzer barik

geratzen naiz, klaro. Baina gero garbatu egiten zait.

Idazle honen afizio nagusia aipuak botatzea da, frantzesez eta gaztelaniaz: Mallarmé, Oteiza, Nietzsche, Poe, Malcom Lowry, Félix de Azua, Ronald "Demodelora" Laing, Patricia Highsmith, Artaud, Rappel, Scott Fitzgerald, García Lorca, Dreyfuss kasua, Mortadelo eta Filemón, Kafka, Trakl eta, batez ere, Lacan (arratsalde batean bota ahal dizkizun izenak dira).

Berak pentsatzen du unibertso osoa bere kontra daukala eta, agian, arrazoia dauka: unibertso erreala eta fiktizioa ere, bere kontra daude.

Joan zen urtean egin nion azken entrebista, "Noski" tabernan (ze izen zatarrak taberna baterako). Panerok alkoholari aspaldi utzi zion eta orain Coca-Cola asko edaten du. Eta erre, buf, munduko erretzailerik handiena da. Zaila da inongoa ez izatea.

Panero hemengoa balitz, kale bat eta arbol bat bere izenean jarriko genizkioke.


344. zenbaki honetan

1996ko abenduaren 13an

Asteko agenda.....	4/5	Orain eta hemen.....	10/11	Kulturaren txokoa.....	25
Irakurlea idazle.....	6	Txutxumutxuak.....	12/15	Azoka plaza.....	28/29
Inkesta.....	7	Asteko gaia.....	17/19	Soroik soro.....	31
Astearen erreposoa.....	9	Kirolak jokoan.....	20/22	Ikusi eta entzun.....	33

<i>Ikuspegia</i>	
J. L. Azkarate.....	3
<i>Euren ikuspuntutik</i>	
Oskar Elizburu.....	8
<i>Hogeita hamar galderatan</i>	
Joseba Ugalde.....	30
<i>Aurrez aurre</i>	
Andoni Sagarna..	26/27

<i>Asteko gaia</i>	
Musika eta	
integrazioa.....	17/19



Aschero sistemari esker, haur atzeratuek musika ikasteko aukera dute Arrasate Musikalena.

ARCO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzaileak: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitateak:** Alberto Garro, Kaitin Allende (Tfnoa: 77 06 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube (Tfnoa: 77 08 15) **Diseinua:** Goyo Arana. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Maria del Campo, Iban del Campo, Itxaro Antolia, Rosa Mondragón, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenago, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA taldea, Sabin Arrieta, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Fidel Berezibar, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Baulista Agorria, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kipi, Jon Ozaeta, Birginita Urkiola, Jabi Luengo. **Banaketaren arduradunak:** Jasone Mendizabal-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tfnoa: 6.200. **Legearria:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertru Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Jabí Luengo.

Arrasateko Udaleren laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

13 ostirala

■ ZINEA

Belleza robada Alai Zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ MANIFESTAZIOA

Gestorak deituta, "Presoak gose greban. Euskal presoak Euskal Herrira." lemapean manifestazioa aterako da arratsaldeko 7etan Seberotik.

tsaldeko 6etatik aurrera. Trikitilariak eta txalaparta izango dira.

■ PAILAZOAK

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen "Pantera Beltza" ikuskizuna Amaia antzokian, arratsaldeko 4etan eta 6etan. Sarrerak salgai takilan 800 pta.tan (helduak), 600ean (haurrak) eta 400ean Superbat-eko karnetarekin. Txartelak erosteko azken eguna gaur 6etatik 8etara.

■ UDAZKEN JAIALDIA

Al-Andalus kultur etxe andaluziarrak urteroko UdaZEN Jaialdia egingo du Eskoriatzan arratsaldeko 4.30etatik aurrera. Sueños de Andalucía dantza taldea, Al Andalus koro rozieroa eta Gorosarri euskal dantza taldearen emanaldiak.

■ BERTSOLARIAK

Leintz Gatzagako Page-dar taldeak antolatuta, afaria Gure Ametsa jatetxean gaueko 9etan Xabier Amuriza, Iñaki Murua eta Maddalen Lujanbioren partaidetzarekin. Prezioa 2.500 pta. Txartelak Gatzagako tabernetan salgai.

■ MANIFESTAZIOA

EKBk antolatuta, "Eman Euskarari Bera" lemapean, manifestazioa Bilbon arratsaldeko 5.30etan Sagrado Corazon plazatik. Autobusak antolatu dira bertara joateko. Izena emateko dei egin 77 03 69 telefonora.

15 igandea

■ ZINEA

En honor a la verdad Alai Zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan.

■ ARIN-ARIN ETA FANDANGO TXAPELKETA

Herriko Plazan, arratsaldeko 6.30etan.

■ TXISTU KONTZERTUA

Arrasate Musikalaren eskutik, txistu kontzertua akademiako areto nagusian arratsaldeko 7.30etan.

■ TXOZNARAKO BILERA

Santamasetan Gestorak jarriko duen tabernan parte hartu nahi duten koadrilak daude deituta arratsaldeko 7etan Arrano elkartearen egingo den bilerara.

17 asteartea

■ ZINEA

En honor a la verdad Alai Zineman 7etan eta 9.30etan. Ikuslearen eguna.

■ HITZALDIA

Uribarriko jubilatuta etxeak antolatuta, "HIESa" hitzaldia arratsaldeko 5etan Uribarrin. Hizlaria: Domi Korta.

16 astelehena

■ ZINEA

En honor a la verdad Alai Zineman 7etan eta 9.30etan.

■ HITZALDIA

Emakumeen Asanbladak antolatuta, "Emakumeen eskubideak etxe giroan" gaiari buruzko hitzaldia, udal-tereko pleno aretoan arratsaldeko 7etan. Hizlaria: Susana Charotti, "Clandem" Amerika Latinako biolentziaren aurkako emakume sarearen partaidea.

14 larunbata

■ ZINEA

En honor a la verdad Alai Zineman 5etan, 7.30etan eta 10etan..

■ GAZTAINERRE JANA


AEDko Ordago eta Gazte Taldeak antolatuta, gaztainerre jana herriko plazan arra-



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 79 22 55 79 14 25



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 79 13 05 • Faxa: 79 13 84

18 asteazkena

■ BATZAR NAGUSIA

San Frantzisko Xabier ikas-tolaren batzar nagusia arratsaldeko 6etan Gazteluondoko batzar aretoan. Errektore Kontseilurako ordezkarien hautaketa egingo da.

■ KONTZERTUA

Arrasate Musikalek kontzertua eskainiko du, arratsaldeko 5.30etan Aita Menniko auditorioan.

■ PINTURA ERAKUSKETA

Juan Jose Altuna Akizuren erakusketa ikusgai dago gaurtik urtarrilaren 7ra arte Harresi Aretoan. Ordutegia, egunero 6etatik 8etara eta larunbat eta jaiegunetan 12etatik 2etara eta 6etatik 8etara.

■ ASTROLOGIA IKASTAROA

EKIN emakume taldeak oinarrizko astrologia ikastaroa antolatu du. Kar mele Barandiaran astrologoak emango du ikastaroa, abenduaren 26, 27 eta 28an 4etatik 6etara. Kar mele Estatu Batuetako unibertsitate batean lortu zuen bere titulua eta aditua da gaietan.

Ikastaroa AEDko lokalean burutuko da. Matrikula 2.000 pta. Izena emateko epea abenduaren 18a.

■ BENITO LERTXUNDIREN KANTALDIA

Abenduaren 20an, Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrerak salgai: Biona eta Kajoi taberna, eta Hire liburutenda, 800 pezetatan. Takilan: 1.000 pta. Antolatzaileak: Senideak eta Santamas komisioa.

■ MASTER CLASS

Metal Instrumentuen Lagun Elkarteak, tuba eta kamera musikako master class-a antolatu du abenduaren 14rako eta 15erako. Jose Antonio Rubiok, Euskadiko Orkestra Sinfonikoko

tuba solistak emango ditu eskolak. Master Class-a larunbat arratsaldean hasiko da eta igande eguerdian amaitu. Bazkideek ez dute ezer ordaindu behar, bazkide ez direnek berriz 7.000 pta. bazkaria barne. Eskolak Arrasate Musikal akademian izango dira.

■ HITZALDIA

Emakumeen Asanbladak hitzaldia antolatu du datorren astelehen arratsalderako. "Emakumeen eskubideak etxe giroan" gaiari buruz berba egingo du Susana Charotti, "Clandem" Amerika Latinako biolentziaren aurkako emakume sarearen partaideak. Udaletxeko pleno aretoan arratsaldeko 7etan.

19 osteguna

■ ZINEA

Mis dobles, mi mujer y yo Alai zineman 7etan eta 9.30etan.

■ AEDren SARI BANAKETA

AEDk antolatutako Arrasate 96 eta Iokin Zaitegi lehiaketetako sariak banatuko dira arratsaldeko 7etan Monterronen.



FRUTA, BARAZKI, KAPOI ETA ARDI-GAZTA LEHIAKETA

Arrasateko Udalak urteroko Santamas Fruta, Barazki, Kapoi eta Ardi-Gazta lehiaketa antolatu du abenduaren 22rako. Fruta sailean 30.000 eta 20.000 ptako bi sari izango dira; barazkietan 30.000ko bat eta 20.000ko bi; Kapoietan 30.000 ptako bat eta 20.000ko beste bat eta gaztetan 30.000 pta. eta 20.000. banatuko dira bi saritan. Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea abenduaren 17an, eguerdiko 12etan amaituko da. Izene-matea Udaletxean egin behar da. Tel: 79 09 00.

**Abenduaren 22an.
Azoka Plazan.
Goizeko 9etatik aurrera.**

**HIES
EKIMENA**

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tel.: 79 26 99

GUARDIAKO FARMAZIAK

- Ostirala 13**
 • 10ak arte: Ruiz. Maala.
 • Egunez eta gauzez: Puy. Bergara.
- Larunbata 14**
 • 10ak arte: Morales. San Andres.
 • Egunez eta gauzez: Guallar. Bergara
- Igandea 15**
 • 10ak arte: Azkoaga. Ferrerías.
 • Egunez eta gauzez: Guallar. Bergara
- Astelehena 16**
 • 10ak arte: Español. Iturriotz.
 • Egunez eta gauzez: Estella. Bergara
- Asteartea 17**
 • 10ak arte: Corcuera. Musakola.
 • Egunez eta gauzez: Mozos. Bergara
- Asteazkena 18**
 • 10ak arte: Irizar. Erguin.
 • Egunez eta gauzez: Camacho. Bergara
- Osteguna 19**
 • 10ak arte: Amezua. Santamaina.
 • Egunez eta gauzez: Puy. Bergara

BEHARREZKO TELEFONOAK

- Eritetxeak**
 Arrasateko Eskualde-Ospit. . . 79 53 00
 Iguatoriora . . . 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) . . . 79 39 00
 (emakumeak) . . . 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua . . 79 90 11
- Gurutze Gorria**
 Bergara 76 55 76
- DYA**
 Antzuola 76 62 91
- Anbulatorioak**
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria . . . 77 03 46
 • Espezialitateak 77 05 78
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16
- Anbulantziak**
 Gipuzkoako ambulanziaz . . . 45 87 44
- Udaltzaingoa**
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 088
- Ertzaintza**
 Arrasate 79 71 99
- Suhiltzaileak**
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua . 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea . . 088
- Matxurak**
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) . . . 12 01 62
 Gasak 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78
- Garraioak**
 Taxiak 79 12 22
 PESA 79 14 19
- Hirugarren adinekoendako zentruak**
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza . . . 79 81 57
- Kontsumitzailearendako informazioa**
 KIUB-OMIC 79 51 55
- Monterrongo liburutegia**
 Monterron 77 01 05
- Irratia**
 Arrasate Irratia 79 58 77

POTEOKO LAGUN BERRIA

Orain dela aste gutxi, norbaitek idazten zuen **ARRASATE PRESSEN**, euskaldunok harro sentitzen garena euskaldun izateaz. Zergatik? Ba, hemen bezala ez delako inon bizi; hemengo janaria, gabeko giroa, koadrilak eta poteoa!

Lehenengoaz ni ere erabat ados nago; egia esan ez dut herrialde askotako janaririk probatu baina dastatu ditudanetatik, gurea onena iruditzen zait.

Gabeko giroez, beno, gaba gustatzen bazaizu, ondo dago bai, Euskal Herriko giroa, nahiz eta pixka bat dejenaraten doan (agian neu zahartzen).

Koadrila eta poteoaz, berriz, badaukat zerbait esateko. Orokorrean esan daiteke astelehenetik ostiralera ez dugula koadrilarekin harremanik, bakoitzak bere bizimodua du, batzuk ikasten, beste batzuk lanean eta beste asko langabezian. Gure ilusioetariko bat, ostirala heldu eta poteora irtetea da, koadrilarekin, gorri edo zurito batzuk hartuaz bat, aste-ko abenturak kontatzeko. Heltzen da beraz ostirala, eta aipatu bezala, aste-ko berriak azaldu eta lagunena entzun, baina hauei errepasotxo emanda gero ez dakigu ia zertaz hitzegin, dana dala, "Ez zaitez arduratu", norbait jadanik konturatuta zegoen horretaz eta lagun berri, berritsu, zaratsatu eta alaia ekarri digu albora.

Lagun hau tremendoa da. Danetik daki eta ez da inoiz isiltzen: mundu osoaren egoeraz, Ruandako gorabeherak, Euskal Herriko gatazkak, futbolaz nola ez!!!

Morbosoa ere bada oso. Inguruko tragedia denak ezagutzen ditu, eta "kotila", ene!!!, hau da lagun txis-

mosoa, bata besteaz ezkondu dela baina honek hirugarren bateaz eduki zuela amodio abentura, etab... Hori bai, dena bere modu partikularrean azaltzen du eta izugarritzko gaitasuna du denak berari begira egoteko.

Guk beraz, horixe, berari entzun, begiratu, eta noizean behin, gure artean komentarioren bat egin, "beno, beno, hau da gezurtia...", hau da lagun xelebrea etorri zaiguna", baina hala ere, berriro, arreta dana berrari.

Hau da ona hau. Bera ez dagoenean danok aitortzen dugu ez zaigula batere gustatzen, baina... lehen aipatu dudana gaitasuna benetan izugarria da.

Nola? Ez duzula oraindik ezagutzen? Ziur baietz, bestela, astebukaera honetan irten ezazu poteora eta ezagutuko duzu. Bere izena Telebista da.

Niri pertsonalki ez zait batere ondo iruditzen lagun hau gure artean sartzen den moduan sartzea beraz mese- de bat eskatuko nioke: "Gera zaitez zure etxean eta zurekin egotea nahi duena joan dadila zuregana zu gugana etorri beharrean".

Miren Axpe

EUSKAL PRESOK EUSKAL HERRIRA

Azken hilabeteotan euskal gizarteko sektore guztietako jendea ari da parte hartzen euskal preso-ak Euskal Herrira ekartzearen aldeko gizarte mobilizazio erraldoi eta iraunkor honetan. Milaka eta milaka dira presoaren aldeko ehundaka ekimen eta bestelako ekintzekin bat egiten dutenak, Euskal Herriko azken

txokoan hasi eta gure geografian mugetatik kanpo bukatuz. Tamalez, ordea, komunikabide gehienek ez diote gizarte-mobilizazio erraldoi honi behar besteko ohiartzuna ematen.

Guk oso argi dugu hau dela jarraitu eta indartu beharreko bidea. Euskal gizarte-ak agintariak presionatu behar ditu, euskal presoek behin eta berriz jasaten dituzten eraso bortitzak lehenbailehen buka daitezten, dis- pertsioaren politika, preso- en aurreko zigorrari erantsi- tako beste bat, senide eta lagunei eragiten diena, ber- tan behera uzteko. Kartze- leroen jipoiak, mehatxu larriak, txantaiak eta proba- kazioak behin betikoz amai daitezten. Politikoei, hitzez gain, beren erantzunkizuna- ri ekintzen bidez erantzun diezaiozten. Gaixotasun sen- daezinak dituzten presoek askatasuna eskura dezaten, eta zigorraren hiru laurdena bete duten ehun preso inguru kalean jar ditzaten.

Funtsean, beraiek egin- dako Espetxeetako Legeriak berak agindutakoa bete deza- tela. Zentzu honetan, esan behar dugu orain dela 15 egun Bilbon elkartu ginen pertsona uholdeak argi eta garbi adierazten zuela herri honen nahia zein den, eta egunero euren buruak demo- kratatatzat azaltzen dituzten horretxek, demokrata ez bes- te edozein gauza direla.


LABeko Arrasateko Herri Biltzarra

Zer izango zenuke kontuan jostailuak erosterakoan?



Rosi Zarraoa
(30 urte)
Langilea

Umeak eskatzen duena erosten dut adina kontuan hartuta. Telebistan ikusten dutena nahi izaten dute, baita ikastolan esaten dietena eta jostailu ona bada hori erosten dut. Neska edo mutila den ez dut kontuan hartzen.



Karmele Iturbe
(38 urte)
Langilea

Lehenengo umearen interesak izango nituzke kontuan Jostailu didaktikoei ere begiratu nieke baina horiek bere interesekoak ez badira, ez nituzke erosiko. Ez dut kontuan hartzen umea neska edo mutila izan.



Mari Nieves Altuna
(40 urte)
Langilea

Puzzle bat edo erosiko nioke ume bati, hau da, zerbait didaktikoa. Egia da telebistako jostailuak nahi izaten dituztela, beraz, horrelako zeozer ere erosiko nioke. Neska edo mutila izatea ere kontuan hartuko nuke.



Miren Larrañaga
(43 urte)
Langilea

Umearen adinari begiratu nioke eta ez nioke telebistan ikusitako jostailurik erosiko. Bere preferentziei ere begiratu nieke eta ez litzaidake inportako neska edo mutila izatea.



Fran Aguilar
(34 urte)
Langabetua

Poltsikoari begiratu nioke eta gero umearen interesei. Umea telebistako jostailuekin enkapritxatuko balitz, burutik kenduko nioke eta zeozer didaktikoa erosiko nuke.



Angel Miranda
(46 urte)
Langilea

Eskuekin muntatzeko zeozer erosiko nuke, hau da, irudimena erabiltzeko jostailuren bat. Ez nuke kontuan izango neska edo mutila den.



Felipe Jose Arzamendi
(53 urte)
Jubilatua

Asko pentsatu nuke eta adinari begiratu nioke. Zerbait irakatsiko dion jostailua oparitu nioke umeari, eta bide batez norberak zeozer ikasi ahal badu, hobeto.



Kako Mertxan
(35 urte)
Langilea

Eskuekin lantzeko jostailuak gustatzen zaizkit. Telebistako zeozer nahi izango balu, engainatu egingo nuke eta burutik ideia hori kendu. Neska edo mutila, berdin da.

Larunbat honetan, arratsaldeko 6etatik aurrera...

Gaztainerre jana

Herriko Plazan, 150 kg. gaztaina banatuko dira!



Animazioa:
trikitalariak,
trabalaparta...



Ordago eta
Gazte Taldea

USTEAK USTE

*Liburu-
merkatuan*

Bitan egon naiz Durangon pasaden asteburuan, eta bietan atzera Azokara sartzeko orduan. Total, zazpigarren lerrotik begira baino, hobe txikiteoan. Ez naiz bakarria. Batek esan dit berak bost minutu egin zituela karpapean lepoa luzatuz; beste batek, berriz, aparkatu ezin, eta hanka; eta bada goizean goiz joan eta lehen ordu-laurdena eroso samar egin duenik ere, baina hortik aurrera bultzaka.

Fauna berri bat bertsoetan diskoan jarri zioten Sarasuatarrek bertso-sorta Durangoko Azokari, "Liburu potolo nahiz flako" estanteritan egoten dira bapo" esaldiaren antzekoak erabiliz. Eta gutxienez hiru izan gaitzen, bat egin beharra daukat bi anaiekin, ez dut uste eta Durangokoak euskal kulturaren benetako egoerarekin zerikusia duenik; gehiago da kontsumikeria kultura gosea baino.

Hemen urtero antolatzen da euskarazko liburu eta diskoaren azoka Frantziskotarren aretoan. "Durango, baina txikiagoa" esaten dit alboak. Hainbeste ez nuke esango, baina bai liburugintzak eta diskogintzak aurten eman dutena lasai ikusteko aukera aparta.

Beñardo Kortabarria



Eman euskarari berea

Oskar Elizburu

Zer behar du, bada, euskarak? Zer du berea? Berez eta legez lekua da dagokiona euskarari, lekua zabaltzeko, erabilia izateko, inongo oztoporik gabe aurrera egiteko eta hori, gaztelera beharrezko eta euskara borondatezko diren bitartean, ez da betetzen ari.

Lekua esaten dugunean ez diogu leku fisikoa bakarrik, ez da kantitate asuntua, kalitatea ere hor dugu eta. Eskola mota eta maila guztietara heldu behar du euskarak, eta jendeak, biztanleak askotan eskatzen badu ere, batzuetan (Euskal Herriko Unibertsitatean adibidez) ez da horretarako aukerarik ematen, ez zaizkio ate guztiak zabaltzen.

Lekua diogunean, baliabide ekonomiko-en banaketan lekua izateaz ere mintzatzen gara, azken urteotan gero eta gutxiago erabili baita euskara arloan, 5 urtetan ia

%25 jeisteraino, eta horrek lekua kentzen dio euskarari.

Lekua esatean, kale, dena, kiroldegi edota edozein gunetan, leku guztietan hain zuzen ere, euskara erabiltzeko aukera eta eskubidea esan nahi dugu; hemen eta egun, erdaraz baino ez denak aritzen, ez digulako euskaraz mintzatzen uzten, nahita zein nahi gabe delarik ere.

Lekua Lakuan, Parlamentu bietan, Hego zein Iparraldeko instituzio guztietan daudenen erabileran. Oso kezkarria da erabilpena inon ere

“Gaztelera beharrezko eta euskara borondatezko diren bitartean euskarak ez du lekurik”

%10eko erabilpenetik ez pasatzea, eta mandatariak hain lasai ikustea, dena zoragarri doala esaten ez dutenean!

Lekua behar luke zalan-tzarik gabe herritarren iritzia eta nahia Politika Linguistiko egiten denean; euskara bultzatzeko eta normaltzeko beharrezko diren neurriei eta plangintza orokorrari lekua egin behar zaizkie, berehala gainera!

Lekua behar du Euskaltegietan, ikasi nahi duen guztiak ikas dezan inolako trabarik gabe, erreztasunak emanda ekonomikoki zein bestelako arloetan; ikasle zein irakasle kopuru mugaturik gabe behar du gainera, eskalduntze alfabetatze munduak, urte batzuk dela izan zuen indarra eta garrantzia berreskura dezan.

Lekua da beraz Euskarak berea duena, eskubidea, eta hori eskatzeko bihar Bilbon izango den manifestazioan parte hartzeko lekua ere denok duzue; Autobusez zein kotxez, ea denok bat egiten dugun abendua-ren 14an arratsaldeko 5.30etan Bilboko kale-etan.

Eman euskarari berea! ■

Oskar Elizburu, AEKko irakaslea da.

**ZUBIZARRETA
TAILERRAK**
Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tel.: 79 15 65

**TXOKO
TABERNA**
*Cure berezitasunak pintxo eta
mokau gozoak*

astea bi hitzetan

■ **Kaixo Ura erakusketa Arrasaten**

Gipuzkoako Ur Partzuergoaren Kaixo Ura erakusketa Arrasaten izan da astean. Joan den ostegunean, herriko alkateak eta Ur Partzuergoko gerenteak prentsaurrekoa eman zuten erakusketaren berri emateko. Saneamendu planaren inguruan alkateak esan zuen, Arrasaten, gehien urbanizatuta dagoen tokian, gehiago kostako dela saneamendu plana aurrera eramatea.

■ **Bihotzekoak jota hil**

Joan den asteazkenean, hilaren 4an, kalean bihotzekoa eman eta hil egin zen Jose Espejo, 74 urteko arrasatearra. Bihotzekoak Portaloian eman zion, eta medi-

kua etorri arren ezin izan zen ezer egin. Iturbide egoitzan bizi zen hildakoa.

Ostegun gauean, berriz, Rafa Atxa hil zen. 64 urteko arrasatearrari Irati elkarrean eman zion bihotzekoak, Senideak elkarteko kide batzuekin batera afari batean parte hartzen ari zela. Atxa oso ezaguna zen herrian, Senideak-en enkartzeladetan parte hartzeaz gain Arrasateko Elkarriko kidea ere bazen eta.

■ **Akordeoi soinuak jaun eta jabe**

Janne Rattya finlandiarrak eraman zuen Arrasate Hiria saria, Nazioarteko Akordeoi Lehiaketako sari nagusia. Bigarren postua ere Finlandiara joan zen, Mike

Vayrynen-ek eskuratu zuen, eta hirugarrena Iñigo Aizpiolea irundarrarendako izan zen. Aizpioleak esan zuenez, lehiaketako parte hartzaileen kalitatea ikusita inondik ere ez zuen uste saria jasotzerik. Antolatzaileak oso pozik azaldu ziren lehiaketarekin, partaidetza handia eta kalitatea izugarria izan ziren eta.

■ **Jai giroa Bedoñan**

Giro onean ospatu ziren pasa den astebukaeran Santa Eulalia jaiak Bedoñan. Egunean zehar batez ere haurrentako ekintzak izan ziren, eta zapatu gauean auzo afaria egin zen. Afarian Murua eta Peñagarikano bertsolariak parte hartu zuten.

KONSTITUZIOAREN KONTRAKO EKINTZAK

Konstituzioaren kontratxialdia burutu zuen hainbat gaztek ostegun gauetik ostiral goizera arte Arrasateko Udaletxean. Ostiralean, berriz, erdialdeko kaleetan kalejira zaratsua egin zuten. Arratsaldeko 7.30etan, bestalde, manifestazioa egin zen Arrasaten, hau ere Konstituzioaren aurka.



Duela 20 urte juxtu, aitak gizon batean hiletara eraman ninduen. Egun hura gogoan har nezan nahiko zuen.

Jose Maria Arizmendiarieta zen hildakoa (geroztik argazki batetik jakin nuen Antonio Tejero ere izan zela hileta hartan). Geroztik ohartu nintzen beste honetaz ere, piskanka: zerraldo ikusi nuen gizon argal hark desberdintzaren apustua etengabe egin zuela. Eta gauzatu egin zuela. Arlorik zailenetakoan landu zuen desberdintza: ekonomian, lana ulertzeko moduan.



(...) Zenbat eztabaida gaztetxo ginenetik: kooperatibismoa ez omen zen aski iraultzailea. Hori zioteneta-ko asko orain funtzionariak dira, edo neoliberalismoaren onuradun eszeptikoak. Bitartean, kooperatibak beren bidean. Beren kontraesanekin, beren kontzesio eta arriskuekin, krisiari aurre eginez, desafio berrietan sartuz. Ez aski iraultzaile, jakina. Baina dogma (sasi)marxistak ahulduta gero, zer gelditzen zaigu? Desberdintza. Esperientzia desberdinen erreserba. Eta hiru aditz: apustu egin, eraiki, frogatu”.

JON SARASUA,
Euskaldunon Egunkaria
1996-11-3

Hilaren 17tik aurrera **OYAL**en umeen arropatan prezio bakarra: **1.000 pta.**

Adi!

Erdiko kale, 48 • Tel. 79 18 00 • ARRASATE

Udal azokan saltokiak

Udal azokan bete barik dauden lau saltoki adjudikatze-ko lehiaketa ireki du Udalak. Saltoki horietatik hiru finkoak dira, hau da, egunero irekita egongo direnak, eta beste asteazkenetan eta ostiraletan erabiltzekoa. Lehiaketaren inguruko informazio nahi izanez gero, zuzendu Udaleko Zerbitzu Sailera.

Jaiotzak

- Iker Azurmendi Kernstock. Azaroaren 26an.
- Iñaki Ormaetxea Orobengoa. 29an.

Ezkontzak

- Miguel Hernandez Aznar eta Angela Cuevas Romero. Abenduaren 3an. Zibilez.

Hildakoak

- Jose Maria Uribealzo Bengoa. Azaroaren 27an. 63 urte.
- Jose Gantxegi Barrutia. 29an. 87 urte.
- Lucila Cuello Garcia. Abenduaren 1ean. 79 urte.
- Candido Metola Garcia. 1ean. 63 urte.
- Jose Espejo Espejo. 4an. 74 urte.
- Joaquin Soto Garcia. 6an. 75 urte.
- Diego Antonio Martin Romero. 6an. 86 urte.

Inma Puerta (Traperos De Emaus-eko koordinatzailea) "Kontsumitu hirugarren munduko produktuak, hemengo preziotan"

Gaurtik igandera artean, bidezko merkataritza bultzatu nahi duen autobusa izango da Arrasaten. Autobusean hirugarren munduko produktuak egongo dira salgai baina bidezko prezioan, hau da, hemengo preziotan. Traperos de Emaus, Mugarik Gabe eta YPEK (Iniciativa Proextractivismo) taldeak dira ekimenaren bultzatzaileak.

Autobusa Lau Bide plazan egongo da, goizeko 10etatik arratsaldeko 8etara.

- Bidezko merkataritza bultzatzea duzue helburutzat. Zer da hori?

- Gure ustez, dirulaguntzak ematez gain beste era batera lagun diezaiekegu hirugarren munduko herrial-

deei. Modu bat iparra eta hegoaren artean merkatal harremanak garatzea izan daiteke, baina bidezko merkataritza bultzatuz. Hau da, hirugarren munduko produktuak merkaturatzea, irabaziekien geratzen diren bitartekari edo enpresa handien parte hartze barik. Beraz, produktuen salneurriak produktuak egin dituztenek ezartzen dituzte, eta irabaziak ere euren dako dira.

- Autobusean zer egongo da salgai?

- Alde batetik gutxi ikusita dauden artisau lanak, batez ere Amazoniakoak. Horrez gain janariak egongo dira salgai, kontserbante barik eta ingurugiroa zainduz ekoiztuta daudenak: Kubako, Peruko edo Costa Ricako kafea, txokolata, Kubako ron-a, Txileko eztria, Amazoniako

almendrak, Afrikako infusioak...

- Aurrez beste herri batzutan izan da autobusa. Jendea animatzen da erostera?

- Horretan herriko jendearen sentsibilitateak eragin handia du, baina guri salmenta kopuruek ez digute hainbeste axola. Ekimen honekin, bidezko merkataritza zer den erakutsi nahi dugu jendeari. %0,7aren kontua hor dago, baina horrez gain laguntzeko beste bide batzuk daudela jakin behar du herritarrak. Horregatik, gure slogana Corte Inglesaren aldeantzikoa da. Corte Inglesek zera esaten zuen: "kontsumitu hango produktuak hango preziotan"; guk, berriz, zera aldarrikatzen dugu: "kontsumitu hango produktuak hemengo preziotan".



Ostiraletik igandera arte egongo da autobusa Lau Bide plazan. Goizeko 10etatik arratsaldeko 8etara.

Nerea Bengoa Fdez. de Campinun osteopata

Zirugia eta medikuntzan lizentziatua GREMMO-en osteopatian diplomatua

Bizkarreko minak, sorbalda, lunbaldiak, zerbikaldiak, zefaleak, bertigoak...

Kontsulta Arrasaten, txanda hartzeko deitu

989-58 66 89 tel. mugikorrera

(Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik- 13:00ra eta 15.00tik 19.00ra)

JUBAR

- Ate eta pertsiana automatikoak
- Urrunerako aginte tresnak
- Seguritate pertsianak
- Mantenimendua
- Sarbide kontrola

Kataide Poligonoa, 18 • ARRASATE • Tel.: 79 10 20 • Faxe: 79 08 17

Gabonen aurrean, jostailuak modu onean erosteko kanpaina

Udaleko Emakume Sailak eta Kontsumitzaileen Informazioarako Bulegoak, jostailuen inguruko ohiturak aldatu nahi dituen kanpaina hasi dute. Horretarako, jostailuak erosteko kontuan hartu behar diren gomendioak aipatzen dituen diptikoak banatu dituzte etxebizitza guztietan.

Kanpaina zaila, aipatzen diren gomendioak oso gutxitan betetzen direla kontuan hartzen bada. Esate batera, jostailuak erosteko Gabonak iritsi arte ez itzarotea eskatzen da, baina Zur-Lur jostailu dendako J.M. Aspek esan bezala, jostailu gehienak azken uanean erosten dira. Hori jakina, erosleen eta dendariaren kalterako izaten da. Haurraren irudimena gartzeko jostailuak erostea ere gomendatzen da diptikoan, baina Aspek aipatzen duenez gehienbat telebistan iragaritzen direnak erosten dira. Dendariak aitortzen du jostailu horiek erostea ez dela komenigarria, Gabon ostean



Umeek normalean telebistan agertzen diren jostailuak nahi dituzte.

fabrikatzaileek jostailu horiek alde batera utzi eta ordezko piezak aurkitzea zaila izaten delako.

Bukatzeko esaten da komeni dela neskato-mutikoen artean desberdintasunik

ez egitea. Zur-Lur-ekoaren esanetan, kasu batzuetan ez da desberdintasunik egiten eta eskatuz gero erosten zaio pampina mutikoari. Hala ere, beti ei dago desberdintasunik egiten duenik.

AKEIko langileen mobilizazioak

Lan Ordezkariek Dragados-en aldeko erabakia eman duenez, AKEIko langileek erabaki hori errekurritu dute. Horrez gain, mobilizazio berriak hasiko dituztela aurreratu dute langileek.

Josu Arkauz gose greban

Josu Arkauz preso arrasatearrak gose grebari ekin dio, Frantzian betetzen ari den espetxe zigorra amaitutakoan Espainiako Poliziaren esku ez dezatela utzi eskatzeko. Preso arrasatearra urtarilaren 13an aterako da Saint Maur presondegitik zortzi urte kartzelan egon ondoren. Bere aurkako salaketarik edo estradizio eskaerarik ez dagoenez, aske geratzeko kanpainari ekin diote Arkauzek eta bere familiartekoek. Hainbat taldek, gainera, espultsioa legez kanpoko litzatekeela salatu du.

LUDOTEKARI LANPOSTUA

Egun erdiko kontratua.

Baloratuko dena:

- Haur eta gazteekin esperientzia.
- Ikasketak (magisteritza, tasoc, psikologia, pedagogia...)
- Aisialdiko begirale titulua.

Kurrikulumak jasotzeko epea: abenduak 20.

Txatxilipurdiko bulegoetan. Pablo Uranga, 6 • Tel.: 79 54 46 • ARRASATE



Haur eta gazte ekintzak AED

S a n
Nikolas kantua abestu
ondoren, goxoki, intxaur eta gaz-
taina mordoa erori zen Udaletxeko bal-
koitik joan den ostiralean. Urteroko bolo-
bolora ume pila joan zen eta jakina, nega-
rrak, bultzakadak eta haserreak ez ziren
faltan izan. Hala ere, ziur ume guztiak
euren plastiko poltsak bete bete egin-
da eraman zituztela etxera!



**BOLO-BOLOA
HERRIKO PLAZAN**



**URTEAK PASATU ARREN
MAITEMINDUTA**

Urriaren 14an urrezko eztaiak ospatu zituzten Axun Leibarrek eta Andres Olabek. Berandu heldu zaigu Gesalibarren bizi diren senar emazte hauen argazkia, baina inoiz ez da berandu zorianak emateko. Argazkian ageri direnak: Axun eta Andres eta emaztearen ahizpak eta koñatua.

IZENA

Jesus Larrañaga
eta **Jose M^a Ormaetxea**, 1996ko Txemi Cantera ekonomia sozialeko saria jaso zuten pasa den asteartean Bilboko Carlton Hotelean, Ramon Jauregiren eskutik. Bizitza osoan zehar egindako lanagatik, eta kooperatibismoaren sorreran izan zuten eraginagatik jaso zuten saria bi arrasatearrek.

ZENBAKIA

1.200

lagunek ikusi zituzten larunbata eta igandea artean Akordeoi Lehiaketetako azken bi saioak. Guztira 410 akordeoilarik hartu zuten parte lehiaketan: 18k Nazioarteko Lehiaketan, 39k Gipuzkoakoan, eta 353k Jaialdian.

DATA

1910ko abenduak 8

Euskaldunon Batzokia zabaldu zen Arrasaten. Batzokiko lehen idazkaria Agustin Maidagan izan zen; eta udal batzordea, idazkariariaz gainera, Miguel de San Pedro y Altubek, Patricio Osinagak, Jose A. Palacios Otaduyk eta Benigno de Altubek osatzen zuten.

**UGARAN
jatetxea**
Garagartza auzoa
Tfnoa: 79 76 58
ARRASATE

Marivi
LORADENDA
Alfonso X jakintsua 5
(Grupo San Juanen)
Tel.. 79 15 59 • ARRASATE
Koroak, ezkontzarako edo momentu berezietarako lore sortak.

Memesa
79 42 22

Eguna: Abenduaren 14a
Ordua: Arratsaldeko 4etan eta 6etan.
Tokia: Amaia antzokia

"Pantera Beltza"

TXIRRI, MIRRI ETA TXIRIBITON





*Ikatza ez da
Gabon hauetan
jaso dezakezun
oparirik txarrena.*



LASAGABASTER

*Gabon hauetan ez dezazu imitaziorik onartu.
Eros itzazu zure Levi's-ak bakarrik denda baimenduetan.*



AMAGARA

Erdiko Kale, 54 etxabea
ARRASATE
Tfnoa: 79 09 09

Jai zorientzuek izan!

**Ez badakizu zer eskatu...
Olentzerok aurten edertasuna oparituko dizu!**



Lehen

**BEKAINEN
BIRMOLDAKETA**

Ile gutxi edo bekainen forma aldatzeko, birmoldaketa eta berregituraketa bidez "ilez ile" teknikaz, betazalaren "lifting-efektua" lortzen da.



ORAIN

Zatoz,
Amagaran
informatuko
zaitugu.

**TATUAJE
ARTISTIKOAK.**

**BETILEEN
PERMANENTEA
ETA TINDAKETA**

Baita bestelako aukera asko ere:

- Gorputzerako tratamenduak
- Aurpegirako tratamenduak
- Depilazioa argizari bero/hotzarekin.
- Depilazio elektrikoa (Blend sistema).
- Kontsulta medikoa terapia bereziekin.



Lehen

**EZPAINEN
BOLUMENA HAUNDITZEA**

Asimetriak zuzendu eta ezpainen bolumen optikoa handitzea.



ORAIN



Lehen

**BEKAINAK
EGITEA**

Alopeziak eragindako zonaldetan bekainak diseinatu eta egitea "ilez-ile" teknikaz.




ORAIN



Lehen

**PERFILATZE ETA
KOLOREZTATZEA**

Ezpainak perfilatu eta lerroaren hobekuntza.



ORAIN



Ez, ez dira Miss-ak baina bai Emakumeen arteko 4. Mus Txapelketako txapeldunak, Begoña Arana eta Izaskun Jauregi. Bien artean dagoen gizona berriz, Roman

MISS MUS

Lopez da, Arrasateko makina bat emakumeri musean jolasten erakutsi die-na. Txapeldunak Maria Angeles Okinaren eta Mari Tere Altunaren aurka aritu ziren abenduaren lean. Zorionak bikote eta horrela segi!

EGUBERRIETAKO POSTAL POLITENAK

La Merced ikastetxeko Nagore Ipiña eta David Cruzek Gipuzkoako Gurasoen Elkartearen Federakundeak antolatzen duen Christma postal lehiaketan bigarren postua lortu zuten. Zorionak!



UDALTZAIN EKIPO BERRIA

Hauek dira Arrasateko udaltzain berriak euren jertse, anorak eta txapela dotoreekin. Batzuk ia bi hilabete darrazmatzate lanean eta beste batzuk egun

gutxi batzuk besterik ez. Ezkerreko irrifartsuak Gaizka Telleria, Eduardo Jauregi eta Liher Larrea dira; esku-makoak, berriz, Juan Manuel Urrutia,

Zuriñe Ezpeleta eta Idoia Lazpita. Askotan ikusiko dituzue kalean bueltaka, trafikoa zuzentzen, multak jartzen... herria ondo zainduko dute gero!

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 79 56 11
ARRASATE



HEMEN gozotegia GAO kafeak Kroissanteria

Sebero Altube, 8 • Tel.: 79 94 99 • ARRASATE

~~La acería Marcial Ucín
se va a Francia~~

~~LA ACERIA MARCIAL UCIN SE VA
AL PAIS VASCO FRANCES~~

~~La acería Marcial Ucín
se instala en Iparralde~~

Egunkaria

**Euskal Herrian geratu da
Marcial Ucin altzairutegia**
Lanpostu berriak sortuko omen ditu Baionan

Euskara


Batzango
euskarako hitz
eta erranaiak
bidu ditu
Manero Izetak

politika

En 25 pise
daide gise giban
ata beste 20
hasi baituten
protesta - 1

elkarrekin

nazioa gara



JABI LUENGO

Musikaz integrazionarako bideak zabaltzen

“Zer da eurendako musika? integrazio osoa. Musika ikasi dute eta kontzertuak ematen hasi. Jendearen aurrean barruan duten guztia ematen dute. Sujeto aktiboak, parte-hartzaileak dira eta horrek integratuta sentiarazten ditu. Eguneroko bizitzan pozik eta arazo barik bizi diren pertsonak bezala ikusten ditugu, eta hori ez da egia. Gauza guztietaz konturatzen dira, eta batzuk asko sufritzen dute. Musikak, besteok egiten dugun gauza bera egiteko aukera ematen die. Gizartean integratzeko bide zuzen bat zabaltzen die”, horrela definitzen du Jose Ramon Vitoriak neska-mutil atzeratu hauentzat musikak esan nahi duena. Gizartearentzat zer suposatzen duen kontuan hartzeko ordua da, barruan begiratu eta hainbat eta hainbat aurreritzi hausteko baliogarrira gerta daiteke haur hauen lana.

Esther lehena heldu da. Musika gelaren ondoko banku batean dago eserita, Jose Ramonek noiz deituko itxaroten. Urtebete dela, beste zazpi lagunekin, Larraitz, Ainhua, Beñat, Aintzane, Silvia, Markel eta Josurerekin, Aschero sistemaz emandako musika klaseetara apuntatu zen. Orain, beste guztiek bezala, piano bat du etxean eta bere ikaskideekin

batera zenbait kontzertu eskaini du. Akaso taldeko nagusia izateagatik, aurrerapen handiak egin ditu azken hila-beteotan. Pianoa erosi zuenetik, etxean entsaiatzen ordu asko pasatzen dituen eta kontzertuetako esperientziari esker, Arrasate Musikaleko gainontzeko ikasleekin kontzertu baten parte hartuko du laister. Besteak pentagramaz jositako partiturekin joango dira, bera kolorez egindako partiturekin.

MUSIKAK BADU KOLOREA

Koloreetako partiturak Sergio Aschero musikari argentinarrak asmatutako sistema iraultzaile bati dagokie. Urte t'erdia dela, Aintzanan amak, musika sistema honen berri izan zuen. Jose Ramon Vitoriarengana jo zuen informazio eske eta hau Aschero-rekin jarri zen harremanetan. Musikari argentinarrak Arrasate Musikalen ikastaro batzuk eman zituen ikasleentzat eta irakasleentzat. Aintzane han

zen, eta bere erantzuna berehalakoa izan zen, lehenengo egunetik musika irakurri eta jotzeko gaitasuna erakutsiz. Lortutako emaitzekin harrituta, Jose Ramon konturatu zen ume atzeratuei musika irakastea posible zela.

Musika tradizionalaren kodigoa, zenbaki, kolore, neurri eta bolumenetan oinarritutako kodigo berri bategatik ordezkatzan du Aschero sistemak. Tradizionalean irakurketa oso konplexua den bitartean, Aschero sistema irakurterraza da, azkenean emaitza berdina lortuz: musika egitea baina pertsona guzientzat eskuragarria den modu batez. Jose Ramonentzat. "Sistema tradizionalak abstrakzio maila handia eskatzen du. Horregatik musika ikasteak sakrifizio handia suposatzen du, askotan talde itxi edo eliteendako ikasketak izanik. Aschero sistema, argia, zuzena eta praktikoa da. Zentzumenean oinarritzen da eta denondako erreza egiten da".

Josuk, hiru kolorekin hasi zirela kontatzen du, laruarekin, naranjarekin eta gorriarekin. Kolore bakoitza soinu bat da. Koloreak partituran, teklatuan eta, lehenengo klaseetan bakarrik, behatzen jartzen dira. Erlazio logiko bat eginez, partitura irakurri eta teklatura jotzen da hasiera hasieratik. Gero koloreak gehitzen dira hamabi soinu edo notara heldu arte, eta parametro guztiak lantzen dira, soinuen iraupena, altuera, intentsitatea eta tinbrea. Hezkuntza metodo honek ere, beste atal batzuk jorratzen ditu: plastika, psikomotrizitatea, hizkuntza, arrazonomendua.... Ariketa ezberdinak egiten dituzte arlo hauek guztiak garatzeko: animalí, gauza edo instrumentu musikalen soinuak ezagutu, soinu sekuentziak garatu ipuinen bidez, e.a.

KONTZERTU INPROBISATUA

Josuk ondo baino hobeto



Urte bete dela hasi zirenek jarraitzen dute ilusioa egunero berritzen zaielako.

JABI LUENGO

ezagutzen ditu ipuinak, musikaz aparte, marrazki biziduneko bideoak ikustea gogokatu eta. *Ederra eta piztia* bideotik ateratako abestia konpondu dio Jose Ramonek eta gustora jarri da pianoan pieza interpretatzeko. Bukatu duenean, berak konposatutako kantez hitzegin digu. *Sonokolores* programa informatiboaren bidez, zenbait abesti asmatu ditu gus-

toko gaiak inspirazio iturri erabiliz: *Txori txikia*, *Goenkale*, eta bere amonari eskainitako kantua. Euren eguneroko bizipenak edo gustoko dituzten pertsonaiak, erreferentzia puntu bihurtzen dira musikari zentzu bat emateko. Honen adibide garbia, Goenkaleko pertsonaiek umeen artean duten arrakasta itzela

da. Abesti mordoxka konposatu dute Goenkale gai bezala hartuz, azkena, "Periko" Goenkaleko pertsonaia hil zela eta egin zuten. Txirri, Mirri eta Txiribitonen kantua ere, euren afizioaren pizgarri gertatu dira, kasetean edo teletan entzuten duten kantak jotzeko gai direla ere ikusten dute eta. Markeli, asko gustatzen zaio tanborrada eta tanborradaren

"Aschero sistema erabiliz, abesti guztiak moldatu daitezke. Ez daude mugarik"

"Kontzertuetan erakusten duten poza ezin da deskribatu, euren lanaren saria dira txaloak"

Jose Ramon Vitoria



Pianoan jarrita barruan duten guztia kanporatzen dute.

JABI LUENGO

erritmoa erreferentzia musika da berarentzat.

Larraitzi jotzeko txanda heldu zaionean, Josuk bere beste afizioetako bat erakutsi digu: aurkeztea. Kontzertuetan bera da aurkezle ofiziala, eta barrezka kontatzen du ATBko aurkezle izatea gustatuko litzaiokeela. Gaurkoan mikrofonoaren faltan, errotuladore bat eskuan hartu du eta Larraitzi eta jo behar duen piezaren izena aurkeztu ditu. Larraitzi euskal kantak iruditzen zaizkio politenak eta *Euskara* kantua interpretatu du. Ainhoari, partiturak ahaztu zaizkio etxean, baina denon harridurarako buruz eskaini digu bere izena duen pieza. Txaloak barrez eskertzen dituzte eta ekitaldi musikalaria agurra emateko, errotuladorea hartu eta profesionaltasunez hitzeging du Josuk. "Eskerrik asko guztioi etortzeagatik. Agur eta hurrengorara arte".

"Normalizazioa eta integrazioa alde bietara ematen da jendearen errespetoa irabazten dute eta"

Jose Ramon Vitoria

EGUNERO GAINDITZEN DEN ERRONKA

Jose Ramon Vitoria burubelari murgildu zen orain dela urte eta erdi abentura honetan. Ume atzeratuei klaseak emateko erronkari eutsiz, Aschero sistemaren metodologia prestatzen hasi zen. Dagoeneko, Madrilgo argitaletxe batek kaleratuko dituen 250 euskal kanta Aschero sistemara pasa ditu eta ikasle bakoitzak 15-20 abestiren errepertorioa du. Sartutako lan orduak bere fruitua eman dute. Bai gurasoen bai bere

aurrikuspen guztiak gainditu ditu esperientziak. "Hamazazpi urte daramatzat musika klaseak ematen eta horrelakorik ez dut sekula ikusi. Prozesua oso positiboa izan da orain arte, baina egunero egiten dugun aurrerapenekin harrিতa gertatzen naiz". Euskal Herrian pioneroa den esperientzia hau helburu apal batekin jaiobazen ere, lortutako emaitzak positibitate asko zabaldu ditu. "Helburua umeak orkesta edo herriko bandetan integratzea litzateke. Aschero sistema erabiliz, abestiak moldatu beste-

rik ez dago. Ez dago mugarik". Umeek kontzertu ugari eman dituzte dagoeneko, Arrasate Musikalen, Amaia antzokian, Legutianoko Kultur Etxean, Loiola Irratian eta azkena Eskoriatzako Irakasle eskolan. Kontzertu hauek garrantzia handia dute umeentzat. "Euren lanaren eta esfortzuaren saria dira. Erakusten duten poza ezin da deskribatu. Gainera kontzertuen ondoren guztiz motibatuta egoten dira, lan gehiago egiteko irrikaz. Beste ikasleekin ere harremanak sendotu egiten dira. Normalizazioa eta integrazioa alde bietara ematen da jendearen errespetoa irabazten dute eta".

Kontzertu gehiago emateko asmoa badute, Oñatin eta Madrilan esate batera, baina ikasten jarraitzea da helburua; ikasi eta irakatsi, irakasteko asko dute eta. ■

Marian Porcel

Saioa Karate taldeko karateka

ERIK MARTIN

Urrezko domina lortu du Gipuzkoako Txapelketan

— **Gipuzkoako txapelduna izanda, zer sentitzen da?**

— Poz handia, juniorretan parte hartzen nuen lehen aldian zen eta parte hartzaile guztien artean lehena izatea beti da pozgarria, gainera ia urte osoa lesionatuta egon naiz.

— **Zein lesio izan duzu?**

— Bizkarreko bertebra bat minduta nuen eta ezin izan dut karatea egin. Horrez gain, txapelketa baino bost egun lehenago belaunean min hartu nuen.

— **Txapelketa batean zer da gogorrena?**


— Hastea, berotu barik zaude eta lehen borroka gogorra egiten da, gerokoak berehala irteten dira.

— **Borrokaldiak egiteko orduan zertan pentsatzen da?**

Ezertaz, kontzentratuta egon behar zara eta ezin ezertaz pentsatu. Nik bi borrokaldi egin nituen eta bigarrena iruditu zitzaidan zailagoa aurkaria galtzen zihonan eta gogor aritu zelako.

— **Nori eskeiniko zenioke domina?**

— Entrenatzaileari eta laguntzen ibili diren guztiei.




FUTBOLA Ordizia bisitari Atxabalpen



Multzoko bigarren taldearen kontra neurtuko ditu indarrak Mondrak domekan arratsaldeko 3.30etatik aurrera Atxabalpen. Ordiziak Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera 27 puntu ditu eta sailkapeneko buruan dago. Jesus Mari Barrutiabengoaren mutilentzat goialdean jarraitzeko nahi eta nahiez irabazi beharreko neurketa da. Era berean ez da ahaztu behar Arrasateko taldeak etxean emaitza hobek lortzen dituela. Ordiziak gaur arte 24 gol sartu ditu eta 14 jaso, batz besteko ona talde sendoa dela erakusteko. Mondrak berriz, 15 sartu eta 22 jaso, behar bada gehiegi jaso. Norgehiagorako Mondrak ez du baja garrantzitsurik izango, horregatik entrenatzailea gus-toko hamaikakoa ateratzeko moduan izango da.

Mondrako emakumeek Oiartzun taldearen bisita jasoko dute domekan goizeko 11etan Atxabalpen. Oiartzun, Añorga eta Eibartarrak taldeekin batera ligako onena da, golak sartzeko trebezia du eta atea ondo babes-ten ere ez da makala. Juani-na Garaiek zuzentzen duen taldeak erronka zaila izango duen arren, garaipena lortzea ez da ezinezko gauza.

RUGBYA Oraingoan pun- tuekin etxera



Arrasateko rugby taldea eta Mungia nor baino nor izango dira domekan Mungian. Partidua goizeko 11.30etan jokatuko da. Rugbylariek pasa


berri den asteburu luzean atsedena izan zuten. Tarte horretan lesionatuta zeudenek sendatzeko aukera izango dute eta baita azken partiduan egin zuten akatsak zuzentzeko ere. Itxuraz irabazteko moduko norgehiagoka izan daiteke.

ESKUBALOIA Inkognita azken emaitza



Eskubaloia taldeek bi partidua jarraian kanpogan jokatu ondoren zapatu honetan Zaragozako Casablanca taldea izango dute aurrean Iturripen arratsaldeko 6etan. Partidua lehiatsu bati egin beharko diote aurre arrasatearrek. Izan ere, Casablanca sailkapeneko 3. tokian dago eta Arrasate azken aurrekoan. Ibon Alzelai entrenatzaileak aspaldiko partez, jokalaririk guztiak gertu izango ditu jokatzen.

SASKIBALOIA Hirugarrenaren bila



Urbina Maltzagak denboraldiko bigarren garaipena lortu zuen zapatuan Iturripen. Bigarrenaren ostean hirugarrena dator eta horretarako domekan izango du aukera Llobregat taldearen kontra. Llobregat taldea ACBko Bartzelonaren ordezkoa da, horrek esan nahi du jokalaririk onez osatuta egongo dela eta ondorioz puntuak ateratzea ez dela erraza izango. Partidua Llobregateko kiroldegian jokatuko da arratsaldeko 7etan. German Monge entrenatzaileak bi baja izango ditu: Iraitz Elorzak orkatila bihurtuta du eta Jose Luis Ortunek zuntz haustura.

Bildots eta untxien atzetik Santamas Kroseko korrikalariak

Arrasate Atletiko Taldeak antolatuta Santamas krosaren XVIII. edizioa burutuko da domekan. Froga nagusia, hau da, koadrilen arteko eguerdiko 12etan hasiko bada ere, aurretik gaztetxoek lasterketak egongo dira ikusgai. Goizeko 10.30etatik 11.30etara 7 urtetik 14 urtera arteko neska-mutilen txanda izango da. 12etan berriz, 6 kilometroko koadrilen arteko froga hasiko da. Bertan 15 urtetik gorako edonork har dezake parte. Talde bakoitzeko federatu bakarra onartuko da. Izenematea dohainekoa da eta egunean bertan egin beharko da. Irteera Olarte kalean izango da eta helmuga Herriko Plazan. Kro-



Korrikalariak sei kilometroko ibilbideari egin beharko diote aurre.

sean besteak beste honako sariak banatuko dira: banakako mailan emakume eta gizonetan lehen sailkatuek garaikurra jasoko dute, lehen beteranoak bezala. Koadri-

len arteko sariak: lehenentzat bildots bat, bigarrenak lau untxi jasoko ditu eta hirugarrenak bost oilasko; emakumezkoen talde azkarrak lau untxi.

Erguin Futbito Txapelketa azkenetara heldu da

Gaztetxoek mailako Erguigo Futbito Txapelketa azken txanpara heldu da. Zapatu eta domeka bitartean hirugarren laugarren postuak eta finalak egongo dira jokuan. Jokatu beharreko neurketa guztiak bukatuta, domekan eguerdiko 12.30etan sari banaketa egingo da Al Andalus-eko lokaletan.

Larunbata

Aurrebenjamin	11.00	Erguin B - Los Txikis
Benjamin	11.00	Into Takolo - Leze Txiki
Alebin	10.00	Makokis - Huracan Txiki
Infantil	10.00	Leintz Astore - San Andres

Igandea

Aurrebenjaminak	11.00	Erguin A - Indo Takolo
Benjaminak	11.00	Pedrusco - Garaje Eder
Alebinak	10.00	CC. Al Andalus - F. Aretx.
Infantilak	10.00	V.C Daglas - Indo Urko

Juan Garairi omenaldi partidua

Herensugeak rugby beterano taldeak Juan Garai jokalaria zenaren omenez neurketa antolatu du abenduaren 21erako. Arrasate eta Getxo izango dira aurrez aurre Garagartzako zelaian, arratsaldeko 4etan. Partidu horretan parte hartzeko entrenamenduak astearte eta asteazkenetan arratsaldeko 7etan izango dira, Musakolako kiroldegian. Jokalari beterano guztiak zaudete gonbidatuta.

UDAk liburua aurkeztu domekan

Aretxabaletako UDA kirol elkarteak aurten bete dituen 50. urteak ospatzeko atera berri duen liburua aurkeztu egingo du domekan eguerdiko 12etan hasita Zarama Zineman. Liburua aurkezteaz gain, Kirol elkarte horren alde lan egin duten hainbat pertsonen insignia jasoko dute. Ekitaldia goizeko 10.30etan hasiko da: Udaletxean UDA-Ko partaideek harrera egingo die gonbidatuei, ondoren meza izango da eta behin bukatuta aurkeztuena. Ekintza hori hasi baino lehen UDAREN liburua egongo da salgai, 1.000 pezetaren truke. Ekitaldia bukatzeko bazkaria egongo da.

● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**IBARRA
Garajea S.L.**



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua

SIRIMIRI
Zure gustoko arropa!

Erdiko kale, 42
Tel.: 79 64 42 • ARRASATE

Sailkapenak

A taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Betrayer	10	10	0	0	69	17	20
Irati STS	10	9	0	1	58	14	18
Pipwhis	10	8	0	2	54	31	16
Aurrera Bolie	10	7	0	3	50	29	14
Galartza Kont	10	7	0	3	48	29	14
Lorategi	10	6	2	2	39	26	14
Abinagraus	10	6	1	3	52	27	13
DKB	10	5	3	2	34	23	13
Arrogoi Taberna	10	6	0	4	33	36	12
Ojo Avisore	10	5	1	4	45	34	11
Baneuko	10	4	2	4	22	28	10
Me la pela	10	4	1	5	29	27	10
Potrosorri	10	4	1	5	35	33	9
Totem	10	4	1	5	37	36	9
Onarieneg	10	4	1	5	24	44	9
Berango Suk.	10	3	1	6	39	47	9
Kriskibalda	10	2	2	6	23	39	7
Alai Gozokiak	10	1	2	7	17	58	6
Viboras	10	1	0	9	39	57	4
Kaxi Ganamos	10	0	0	10	3	30	2
Etxe Mobil	10	0	0	10	5	82	0

B taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
Cerve Leintz	10	9	0	1	66	15	18
Argi Ibili	10	9	0	1	84	24	18
Naranja Mek.	10	9	0	1	66	19	18
Inset Coin	10	8	1	1	56	16	17
Okoretegi	10	7	2	1	61	20	16
Ke Oxtias	10	5	3	2	41	33	13
ZZPPW7	10	4	4	2	53	42	12
Motz	10	5	2	3	42	41	12
Jotakabau	10	5	2	3	31	38	12
Los Innombrables	10	4	3	3	42	40	11
Pepelus	10	4	2	4	42	28	10
Los Heredia	10	5	0	5	43	32	10
Sobre. De Txeria	10	4	1	5	32	43	9
La mosca Gao	10	3	2	5	45	52	8
Perrahotsa	10	2	3	5	25	32	7
Gualtrapas	10	3	1	6	31	49	7
Diego antonio	10	3	0	7	32	48	6
Fosforos	10	2	2	6	27	57	6
Kinder Konpresa	10	2	1	7	26	61	5
Ganbelas	10	2	0	8	37	56	4
Elisabeth	10	0	1	9	17	86	1
Hapoel Jamon	10	0	0	10	13	80	0

D taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
AC Surcos	10	9	0	1	91	28	18
Sortu Informatika	10	7	2	1	49	21	16
Nuevo Taberna	10	7	2	1	59	27	16
MSM Ineg Integral	10	8	0	2	51	25	16
KK Jauraritzari	10	7	1	2	42	38	15
Bedarreta Tab.	10	7	0	3	41	21	14
Txeyenex	10	6	2	2	44	27	14
Sokoakoak	10	6	1	3	66	38	13
Orlando Piratas	10	6	0	3	37	39	12
Koka Juniors	10	4	2	4	39	36	10
Lso Dimy	10	5	0	5	42	42	10
Adelaida	10	4	1	5	30	39	9
Anbotoste	10	4	0	6	28	37	8
Danok Lagun	9	3	2	4	23	33	8
Lautherbrunnen	10	4	0	6	29	44	8
Hirei	10	4	0	6	29	50	8
Tronkoteak	10	3	0	7	22	43	6
Borrock'n Roll	10	2	0	8	53	59	4
Cartonajes Igamo	10	1	2	7	29	38	4
Bukanak	10	2	0	8	24	52	4
Rotor De Bol.	10	1	1	8	7	43	3
Iluna Taberna	10	1	0	9	31	86	2

Laburrak

ANTOLAKUNTZA-REN OHARRA

Hemendik aurrera partidu hasieran antolakuntzak baloia emango dio talde bati eta bukaeran itzuli beharko dute. Horrela ez bada, taldeak zigorra jasoko du. Gaur arte 25 baloi galdu dira Zaldibarren eta bakoitzak 7.600 pezeta balio ditu. Gastu handia delako erabaki dute neurriak hartzea.

PARTIDUA ATZERATU

Orlando Piratas eta Danok Lagun arteko partidua ostegunean arratsaldeko 7etan jokatu behar zen baina antolakuntza ez zenez aurkeztu bertan behera utzi zuten. Hori dela eta abenduaren azken astean jokatu da. Oraindik ez dago zehaztuta ez eguna eta ezta ordua ere. Taldeek erabakiko dute.

Hurrengo partiduak

10. ihardunaldia Abenduak 14. Larunbata ZALDIBAR

8.50	Danok Lagun - Iluna Taberna
10.00	Irati STS - Ojo Avisore
11.00	Hapoel Jamon - Los Heredia
12.00	MSM Ing. Integral - Sokoakoak
13.00	Bedarreta Taberna - Orlando piratas
14.00	ZZPPW7 - Argi Ibili
15.00	Cartonajes Igamo - Lautherbrunnen
16.00	Inset Coin - Ganbelas
17.00	Koka Juniors - Txeyenex
18.00	Borrock'n Roll - Adelaida Aldibi
19.00	Aurrera Bolie - Leya

Iturripe A

11.00	La Mosca Gao - Naranja Mekanika
12.00	Kinder Konpresa - Jotakabau
13.00	Motz - Ke Oxtias
14.00	Lorategi Potroak - Betrayer
15.00	Sobredosis de Txeria - Cerveceria Leintz
16.00	Berango Sukaldeak - DKB
17.00	Fosforos - Gualtrapas

Iturripe B

13.00	Kriskibalda - Arrogoi Taberna
14.00	Anbotoste - KK Jauraritzari
15.00	Baneuko - Potrosorri

16.00	Diego Antonio - Pepelus
17.00	Los Innombrables - Okoretegi

Abenduak 15 Igandea Zaldibar

8.50	Etxe Mobil - Oñaniereng
10.00	Perrahotsa - Elisabeth
11.00	Galartza Kontenedoreak - Pipwhis
12.00	Sortu Informatika - AC Surcos
13.00	Me la pela - Totem

Iturripe A

11.00	Los Dimy - Tronkoteak
12.00	Alai Gozokiak - Abinagraus
13.00	Bukanak - Hirei

Emaitzak

A taldea

Kriskibald 2 - Me la pela 7
Arrogoi taberna 3 - Irati STS 4
Ojo Avisore 2 - Lorategi Potroak 5
Betrayer 10 - Alai Gozokiak 1
Abinagraus 3 - Aurrera Bolie 4
Leya 2 - Baneuko 0
Potrosorri 6 - Berango Sukaldeak 0
DKB 3 - Galartza Kontenedoreak 2
Pipwhis 15 - Etxe Mobil 2
Onariereng 10 - Viboras 6
Kaxi Ganamos 0 - Totem 1

B taldea

Inset Coin 2 - Perrahotsa 3
Ganbelas 5 - Motz 6
Ke Oxtias 6 - ZZPPW7 6
Argi Ibili 10 - Los Innombrables 4
Okoretegi 5 - Kinder Konpresa 2
Jotakabau 3 - Sobre dosis de Txeria 3
Cerveceria Leintz 9 - La Mosca Gao 3
Naanja Mekanika 8 - Diego Antonio 2
Pepelus 8 - Hapoel Jamon 3
Los Heredia 12 - Fosforos 1
Gualtrapas 10 - Elisabeth 3

D taldea

Bedarreta taberna 2 - Bukanak 0
Iluna Taberna 3 - Cartonajes Igamo 10
Lautherbrunnen 4 - MSM Ing. Integral 2
Sokoakoak 5 - Nuevo taberna 7
Rotor de Bolbogrado 0 - Koka Junior 1
Txeyenex 4 - Sortu Informatika 4
AC Surcos 10 - Anbotoste 6
KK Jauraritzari 6 - Borrock Roll 5
Adelaida Aldibi 5 - Los Dimy 2
Tronkoteak 1 - Hirei 3

**Abenduaren
20an
etorkizuna
gertuago
izango duzu**





**Zeramika
erakusketa
eta salmenta**

Uribarri Etorbidea, 22-B
Tel.: 79 81 80 • Faxa: 79 81 80
ARRASATE

JUAN JOSE ALTUNA AKIZU

“Zoratuta nagoela esaten didate baina izugarri gustatzen zait Chillida”

Arrasatearra jaiotzez, baina Bergaran bizi da Juan Jose Altuna Akizu margolaria. Gaur bere margo batzuk erakusgai jarri ditu Harresi Aretoan, margo figuratiboak, baina gustatu, gehiago gustatzen zaio estilo minimalista, eta artisten artean Chillida.

— Nor izan zenuen irakasle?

— Inor, autodidakta naiz betidanik. Orain dela 9 urtetik berriz, margolaritza irakasten dut Bergaran daukadan estudioan eta Elorrioko kultur etxean.

— Zer marraztu eta margotzen duzu?

— Marrazki artistikoa egiten dut, hau da, teknikoa eta geometrikoa ez dena. Hildo artistiko horretatik jarraituta marrazki expresionista edo minimalista egiten dut. Hau egitera heldu arte, beste gutzia probatu izan dut eta orain *ikerketa margolaritza* deritzona egitea gustatzen zait.

— Zertan datza hori?


— Esaten dute margolaritzan dena asmatuta eta margotuta dagoela, baina nik uste dut norbera dela aurkitu behar duena. Materialetan, formetan... ikertu behar da.

— Zein margolari gustatzen zaizkizu?

— Zoratuta nagoela esaten didate baina izugarri gustatzen zait Chillida. Nire ustez minimalista handienetakoa bat da. Oso marrazkilari ona da ere.

— Arrasaten ze margo mota erakutsiko dituzu?

— Margo edo koadro figuratiboak jarriko ditut, ohikoak, eta ez niri gustatzen zaizkidanak, hau da. Mini-



malismoak hemen ez du batere saltzen eta jendeak ez du estiloa ulertzen.

— Baina ez zaio jendeari artea erakutsi behar?

— Bai, baina nire lehen erakusketa da Arrasaten eta oinarrizko margolaritza hasi nahi dut.

— Nongo paisaiak marrazten dituzu?

— Leku guztietakoak, horretan ez dut preferentziarik. Edozein lekutan txoko politak aurkitu daitezkeela uste dut, gainera niri besteei gustatzen ez zaiena margotzea gustatzen zait.

— Aire librean margotzen duzu?

— Bai. Kanpoan margotzeak duen aberastasuna denboraren muga da, argia aldatuz joaten delako etengabe.

— Ze kolore erabiltzen dituzu?

— Kolore gutxi erabiltzea gustatzen zait eta horregatik primarioak erabiltzen ditut. Beltza erabiltzen badut berriz, urdina kendu egiten dut.

aste gazte

■ BEKAK

• “Blanco Herrero” Fundazioak, enpresa, ekonomia eta giza zientzien alorrean ikerketak burutzeko 10 beka kaleratu ditu. Izena emateko epea: abenduak 30.

• Erasmus: 97/98 ikasturterako Erasmus beken deialdia hil honen bukaeran edo urtarrean kaleratzea espero da. Gabonak baino lehen argitaratuko dira baldintzak, plazak e.a. Interesatuak fakultateko idazkaritzan eskuratu dezakete informazio liburuxka.

■ LANA

• Lizarrako Udalak, gizarte laguntzaile lanpostu bat kaleratu du. Epea: abenduak 25.

• Eusko Jaurlaritzak, irakaskuntza ertainetako ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda irekialdia iragarri du. Epea: abenduaren 2tik aurrera zabalik dago.

• Guggenghein Bilbao Museoen Fundazioak, arlo desberdineko hainbat lanpostu betetzeko deialdia egin du. Eskakerak: abenduaren 15a baino lehen.

■ LEHIAKETAK

• IX. Bilboko pop-rock Lehiaketa, bertako Udalak antolatua. Euskal Komunitate Autonomo nahiz beste komunitateetako pop-rock edo heavy musika taldeei zuzenduta. Epea: abenduak 30.

• Sondikako Udalak, ikurriñari buruzko lehiaketa antolatuta du. Herriko Ikurriñaren Enparantzan irudi iraunkor bat jartzeko ideiak bildu nahi dira. Epea: urtarrilak 30.

Informazio gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

Bergaran estudioa dauka eta han margo eskolak ematen ditu, baita Elorrion ere

ANDONI SAGARNA (EUSENOREKO ZUZENDARIA)

“Informatikaz gure kultura”

Betidanik injinerutzak libre utzitako orduak, euskal kultura berpizteko talde eta mugimendu guztietan parte hartzeko aprobetxatu ditu. Elhuyar-eko sortzaileetarikoa eta lehendakaria izan zen. Uzei-ko Zientzia eta Teknologia alorrean lanean hasi zenean, Filosofia eta Letretako Doktoradutza ikasi zuen hainbat eta hainbat hiztegi tekniko prestatzeko. Informatikaren garapenak injinerutza eta euskalgintza uztartzeko aukera eman zion eta burubelarri murgildu zen multimedia eta teknologia berrien munduan. Bien bitartean, Euskal Entziklopedia Nagusia errealitate bihurtzeko lanean dihardu, “entziklopediak kulturaren leihoak dira eta, mundua gure erara ikusteko eta munduak garen bezala ikus gaitzan zabaltzen diren leihoak”.

- Informatikazale amorratuaren fama duzu...

- Bai, lagunek adarra

jotzen didate poltsikoan paper bat eraman beharrean diskette bat eramaten dudalako. Normalean ibiltzen naizen tokietan ordenagailuak daude eta interesatzen zaidan lanen bat edo dokumenturen bat ikusten badut, kopia bat eskatzen dut eta kitto.

Teknologia asko gartu da eta eskaintzen dituen abantailak aprobetxatu behar ditugu.

- Zer eragin du informatikak euskararen munduan?

- Informatikak gizartearen esparru guztietan du eragina, baina momentu honetan euskal

kulturaren garapenean, une kritiko

batean gaude. Oraitxe ari dira hedatzen Intranet sareak, enpresa, entitate eta instituzio ezberdinen ordenadore interkonektatuen sare lokalak. Sare hauetan, nahi duguna egiteko askatasuna dugu. Gure kultura eta euskara sare informatikoen bidez bultzatzeko aukera dugu orain. Egitea edo ez geure esku dago.

- Baina, zein punturaino izan daitezke sare informatikoak baliogarri euskararen normalkuntzarako?

- Bi ahoko

“Gure kultura eta euskara sare informatikoen bidez bultzatzeko aukera dugu orain. Egitea edo ez geure esku dago”



lura bultza dezakegu”

ezpata da. Internet-en %99,9a ingelesa da. Baina Euskal Herrian euskaraz erabili ditzaiteke. Eta mugitzen baldin bagara, euskara erdararen aurretik ipini dezakegu, zerbitzu gehiago eta hobeto eskainiz. Hizkuntza normalizatzeko ez dago ezer hoberik beharrezkoa izatea baino. Hori da lortu behar duguna, aplikazio enpresariala, kalitatea, aberastasun kulturala, e.a. Euskal Herrian euskara ezinbestekoa bihurtuz, Singapurren euskara erabili dezaten prentzitu barik.

- Gizartearen funtsa den arlo sozio-ekonomikoa ez da euskaldundu...

- Intranet-eko enpresatan ez bada euskara kontuan hartzen berriro egongo gara

hipotekatuta. Sentsibilitatea lortu behar da gero erabaki politikoak hartzeko. Behetik gorako lana egin beharrea, ugazabak sentsibilizatu behar dira. Euskalduntze plangintzak goitik inposatzen badira, arrakastatsuak izateko aukera gehiago egongo da.

- Esan duzu ingelesa beharrezkoa dela Interneten ibiltzeko. Ez du honek euskara baztertuko?

- Ezin gara isolatuta bizi eta ingelesa edo txinatarra erabili behar badugu, bada era-

biliko dugu. Lortu behar duguna, ingelesezko zerbitzu eta informazio guztia liseritzea da. Itzulpen kaxkarretatik pasa eta beharrezkoa zaigun informazio hori gure erara moldatu behar dugu, gure kulturari egokitu. Hori eginaz gero, mundu ikaragarri bat zabalduko zaigu.

- Sare informatikoek sortzen duten informazio uholdeak ez du kultura eta gizarte ezberdinak homogenizatzen?

- Puntako teknologia kultura ezberdinak berdintzen dituela frogatu da. Baina horren aurrean,

“alto kontakto” deritzan faktore soziologikoa azalerazen da. Pertsona pertsona da zorionez, eta harremanaren beharra sentitzen du. Gaur egun telelana edo etxetik lan egitea posible bada ere, jendeak

kontaktu fisikoa bilatzen du. Erreakzio honen ondorio zuzena erroetara jotzea da. Ematen du teknologietarako joera hau indartzen den heinean, familiaren, herriaren, ohituraren eta kultura propioaren premia handiagoa dela. Estatu Batuetan, teknologia gehien garatu den lurraldean, joera hau argi azaldu da: denek ezagutu nahi dituzte arbasoak, aintzinako ohiturak, kultura ezberdineko komunitateak...


- Orain EUSENORen lanean ari zarela, Entzikloklirik entziklopedia multimedia egin duzu. Zein helbururekin?

- Entzikloklirik, gai orokorreko eta Euskal Herriko entziklopedia multimedia bat izateaz gain, jendea edukatu nahi du. Teknologia berrietan mugitzen irakatsi eta informazio kopuruaren aurrean, pertsonen zentzu kritikoa piztu nahi du. ■

“Gaur egun telelana edo etxetik lanegitea posible bada ere, jendeak kontaktu fisikoa bilatzen du”

Gabonetan bidali zure opariak modurik seguru eta azkarrean.

Abenduan prezio eta zerbitzu bereziak zure opariak denboraz eta egoera onenean jasoak izateko.



79 92 77

Bizkaia Etorbidea,
16 behea.
20.500 ARRASATE
Tel.: 79 92 77

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Pisia salgai Donostiako Egia auzoan. Prezio ona. Astegunetan deitu. Tel.: 28 38 52.

• Zigorrolan eraberritutako etxebizitza salgai. Tel.: 77 04 63.

• Aretxabaleko Portasol auzoan pisua salgai. Jantzita. Tel.: 79 78 63 (lan orduetan) eta 79 06 84 (lan ordutik kanpo).

• Aretxabaletako San Migel kalean pisua salgai. Tel.: 79 02 09.

2. Erosi

• Pisu merke bat erosiko nuke Arrasaten. Erguinen edo erdialdetik gertu. Tel.: 79 39 92.

3. Errentan emateko

• Ikasleendako pisua alokatzen da Ferixalekuan. Tel.: 79 12 20.

• Guztiz jantzita dagoen pisua alokatzen da Aldain. Tel.: 79 24 21.

• Altamiran etxebizitza alokagai. Tel.: 79 26 47.

• Pisia alokagai Mugarren. Tel.: 79 77 85.

5. Etxe konpartituak

• Lagun bat behar da Eskolatik gertu dagoen pisua osatzeko. Urtarriletik aurrera. Tel.: 77 14 26.

GARAJEAK

7. Saldu

• Roneoko etxeetan garaje bikoitza eta itxia salgai. Tel.: 79 14 66.

• Garaje itxia salgai Zigorrolan. Tel.: 77 04 63.

• Roneoko lehenengo solairuan garaje itxia salgai. Tel.: 79 18 70.

• Roneoko etxeetan garaje itxia eta bikoitza salgai. Tel.: 79 14 66.

9. Errentan emateko

• Larrea aldean garaje itxia alokatzen da. Tel.: 79 69 41.

• Maala kalean garaje itxia alokagai. Tel.: 79 42 13.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

ARRASATE PRESS. Azoka, z/g. 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK

12. Saldu

• Kontsulta amankomuna egiteko lokala salgai. Tel.: 79 06 82 eta 79 46 20.

• Erguin kalean lokala salgai. Tel.: 79 18 70.

14. Errentan emateko

• Martxan doan harategia eskuz aldatzen da. Tel.: 79 28 01.

• Biltegi bezala erabiltzeko 34 m²ko lokala alokagai. Tel.: 79 20 48.

15. Errentan hartzeko

• Biltegi moduan erabiltzeko 100 m²ko lokal baten bila gabiltza. Kamioi bat sartzeko modukoa izan behar du. Tel.: 77 10 50. Jabi.

16. Bestelakoak

• Erdiko kalean lokal komertziala traspasatzen da. Tel.: 78 18 00.

LANA

17. Eskaintzak

• Esperientziadun neska kamarero-lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 76 27

• Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu. Tel.: 79 68 77. Esther.

• Titulodun eta esperientziadun neskek klase partikularrek emango lituzke, DBHkoei nahiz BUPekoei. Klaseak erdaraz. Tel.: 79 79 84. Kontxi.

• Ingeleseko klase partikularrek emango nituzke. Tel.: 79 03 83.

• Fiseoterapeuta diplomaduna etxeko etxeko terapiak egiteko gertu: masaiak, erreabilitazioa, drenaje linfatikoa... Tel.: 79 56 86. Ane.

• Esperientziadun klinika laguntzaileak umeak edo helduak zainduko lituzke. Tel.: 79 34 09. Amaia.

• Esperientziadun neska kamarero-lanetarako gertu. Tel.: 79 61 16.

• Emakumea gertu etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tel.: 79 07 73.

19. Bestelakoak

• Lanak makinaz pasatzen ditut. Euskaraz edo gazteleraz. Tel.: 77 11 84.

18. Eskaerak

• Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin arratsaldez. Tel.: 79 71 34.

• Neska euskaldun gaztea behar da moda denda baten lan egiteko. Tel.: 79 81 82.

• Matematika irakatsiko didan irakasle partikularra behar dut. Ikasgaiak: algebra, analisisa, logika matematikoa eta matematika. Tel.: 79 77 59. Gaueko 10.30etatik aurrera. Fernando.

• Pertsona euskalduna behar da umea zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 77 04 44.

• INEMen eta Gizarte Segurantzaren inskribituta dagoen promotorea behar da Arrasateko Hiper Eroskin lan egiteko abenduaren 21etik, 97ko urtarrilaren 5era bitartean. Tel.: (94) 442 09 97

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Ingeles filologian diplomaduna klase partikularrek emateko gertu. Tel.: 79 59 16.

• Irakasle titulodunak lehen hezkuntzako eta DBHko klase partikularrek emango lituzke. Tel.: 79 94 04. Mari Jose.

• EGA titulodun irakasle batek LH, DBH eta REMeko klase partikularrek emango lituzke. Dei egin 7etatik aurrera 79 43 56 telefonora.

• Klase partikularrek ematen dira. Tel.: 79 98 68 eta 79 40 57.

• Magisteritzako irakasle batek klase partikularrek ematen ditu. Tel.: 79 52 31.

21. Eskaerak

• Marrazki geometrikoko klase partikularrek hartuko nituzke. Tel.: 79 83 33.

• Alemanezko klase partikularrek hartuko nituzke. Tel.: 71 48 90.

MOTORRA**23. Saldu**

- Seat Malaga salgai, 98ra arte ITVa gaindituta dauka. 300.000 pta. Tel.: 79 78 10.
- Opel Corsa GT autoa salgai. ITV pasatu berria. SS-AF. Tel.: 79 32 87. Ruben.
- F-6 Renault furgoneta salgai. 130.000 pta. Negoziagarria. Tel.: 79 03 45.

DENETARIK**26. Saldu**

- Ezkontzeko soinekoa salgai. Taila: 40-42. Tel.: 79 55 28.
- 4x12 pulgadako Marshall bafflea salgai. 1960ko modelokoa. 50.000 pta. Egoera onean dago. Tel.: 14 79 79. Joseba.
- 28 mm. ko objetiboa salgai. 8.000 pta. Tel.: 79 05 64.

• Sukaldea salgai. 10.000 pta. Dei egin denda orduetan 79 23 40 telefonora.

• Pinu egurrezko 10 ate salgai prezio onean. Tel.: 79 23 97. Rafael.

• Fagor markako kalentadorea eta berogailu japoniar bat salgai. Tel.: 79 81 25. Gaeuz dei egin.

• Gela handiak berotzeko gai den akumuladore elektrikoak salgai. Tel.: 79 23 06.

• Mendiko trabesiako botak salgai. Dashcstein markakoak. 38 zenbaki-koak. Tel.: 79 32 98. Gaeuz.

• Mendiko elurretako plastikozko botak salgai. AFS 101 Carboni Fiber-Asolo (39. zenb.) eta AFS 102 Fiber-Glass (44. zenb.). Tel.: 77 22 99. Gaeuz.

• Neskatilendako bizikleta tolesgarria eta 8-12 urte bitartekoendako liburu sorta oso merke salgai. Tel.: 79 82 47.

• Goi kargako garbigailua salgai. Tel.: 77 05 77.

• Kerosenoko berogailu japoniarra salgai. Tel.: 79 03 67.

• Tabako makina salgai. Harrema-

netarako: Jai-Zale taberna. Tel.: 79 67 92.

27. Erosi

• Bigarren eskuko baxua eta aplikadorea erosiko nituzke. Tel.: 79 53 42. Jabi.

• Ordenagailuendako 14 pulgadako pantaila erosiko nuke. Tel.: (945) 44 50 05.

• Auto barruan umea eramateko aukitoxa erosiko nuke. Gaueko Betatik aurrera. Tel.: 79 23 69.

• Kitarra elektriko eta aplikagailua erosiko nituzke. Tel.: 74 37 23.

31. Galdu

• Ostantzabeman aterkina aldatu zidaten, estanpatua da. Tel.: 79 72 61.

• Astelehenean Hiper Eroski inguruan urrezko pultsera galdu nuen. Urre gorri, zuri eta larukoa. Tel.: 79 67 52.

• Iraileko lehenengo astean kartera txiki batean eraztuna galdu nuen. Norbaitek aurkitu badu dei dezala 79 15 24 telefonora. Eskertuko da.

32. Aurkitu

• Azaroaren 16an Astore markako polo urdina topatu genuen Iturripen. Tel.: 79 91 22. Gaeuz.

33. Bestelakoak

• Ipuin pertsonalizatuak egiten ditut nahi den hizkuntzan. Umeendako opari paregabea! Tel.: 79 74 54.

HARREMANAK**34. Agurrak**

• Aupa Pelorrojo! presta ezazu urdai azpikoa laster zure etxean izango gara eta. BBC eta The Times.

37. Bestelakoak

• Rafael Atxaren senitartekok (Feli Zugasti eta seme-alabak) eskerrik beroenak eman nahi dizkizuegu jasotako laguntzagatik. Bestalde, abenduaren 15ean, igandea, goizeko 11.30etan Urbarriko elizan bederatziruareneko elizkizuna izango da. Eskerrik asko.

Benito Lertxundi eta Anaitz

*Ostirala 20, gaueko 10.30etan
Amaia antzokian*

Sarrerak:

- Aurrez (Biona, Hire eta Kajoi) 800 pta.
- Takilan: 1.000 pta.

Antolatzaileak:

- Santamas komisioa
- Senideak




Kontzertua



■ Joseba Ugalde Mendieta

EZKER BATUA-IZQUIERDA UNIDAKO ZINEGOTZIA



1 951ko azaroaren 25ean jaio zen Aretxabaletan. Eskola Politeknikoan FPI ikasketak egin zituen. Orain Arrasateko IU-EBko zinegotzia da. Ezkonduta dago baina ez du seme-alabarik. Gaztetan *Berlin* deitzen zioten bere ile horiagatik. Realeko Kortabarria jokalaria jarri ei zion ezizena.

1. Zein da zure horoskopoa? Sagitario.
2. Sinestuna zara? Ez.
3. Animalia bihurtzekotan? Zaldia.
4. Zure akats bat/gauza on bat? Harrotasuna/Iraunkortasuna.
5. Zerk lotsarazten zaitu? Aukera desberdintasunak.
6. Amets bat? Berdintasuna.
7. Zer kenduko zenuke mundutik? Giza injustizia.
8. Gertakizun historiko bat? 1917ko urriko iraultza.
9. Nor miresten duzu? EZLNko Marcos komandantea.
10. Zeri diozu beldurra? Gaixotasun bategatik sufritzeari.
11. Zertaz damutzen zara? Ezertaz.
12. Negar egin duzun azken aldia? Ez dut gogoratzen.
13. Zer falta zaio Arrasateri? Lana eta auzoak hobetzea.
14. Eta zuri? Gai politiko eta sozialak garatzeko denbora.
15. Lanbidez aldatzekotan? Soziologo.
16. Arrasateko gustoko toki bat?

Santa Barbara.

17. Zein da esan bai, baina azkenean egin ez duzun gauza hori? Moskura kooperatibismoaz hitzegitera joatea.
18. Zein egunkari irakurtzen duzu? El Mundo, El País.
19. Gustoko janari bat? Arraultzak idarrekin.
20. Liburu on bat? La casa de los espíritus.
21. Filmerik onena/txarrena? *Agenda Oculta/Asesinos Natos*.
22. Musika talderik onena/txarrena? Beatles/Ez dakit.
23. Telebistako programarik onena/txarrena? *Linea 900/Sorpresa, Sorpresa*
24. Egin dizuten oparirik politena? Gorputz osoko karikatura bat.
25. Denbora libre zertan pasatzen duzu? Irakurtzen, pasiatzen, txikiteoan, zinean...
26. Oporretarako toki bat? Vera (Almeria) deskantsatzeko, bestela bidaiatzea gustatzen zait.
27. Etxeko lanik gorrotagarriena? Plantxa.
28. Gomendio bat? Solidarioak izan.
29. Zerbaitegatik emango zenuke bizitza? Giza justiziagatik.
30. 200 milio irabaziz gero? Lan egiteari utzi eta EBri lagundu.



SIKOL

Detalle bakarra mila hitz baino hobea

Barruko arropa, gizonezko, emakumezko eta umeentzat.

Olarte, 31 • ARRASATE
Tel.: 79 89 32

*Zuretzat
detalle bat
daukagu!*

Olandixo-Mandoain-Usitxa-Oro-Etxaburu Ixe Arrasate osoa begi bistan

Hau eguraldi ederra, hau! Gaur San Andres auzoko itzulia egin behar dogu. Etxetik abiatu eta Foruen plaza-
ra heldu gara. Lauaxetako bidea hartu eta Olandixoruntz goaz.

- "Ikusi dozue lorategi honeitan zenbat zuhaitz dauen?"

- "Bai, denetik dago".

- "Hor aurrien Olandixo ikusten dot".

- "Aita eta ze zuhaitz dira hauek?"

- "Lehena geriza arbola, beste honeik urretzak..."

- "Ikusi ate ondoan gorosti bat".

- "Bai eta han aurreratxauu ereñotza. Han aurrien ikusten doguna Uribarriko eliza da, auzo osoa ikusten da, goian Udala eta Udalatx, mendebaldera Garagartza eta urri-
nera Anboto".

- "Oin, ezkerretik Miraballeseruntz sartuko gara".

- "Baso hau aretzekin landatu daue; baso honeitan lehen aretza eta gaztaina zien nagusi, baita artadiren bat be".

- "Begira hemen aurrien Miraballes baserria, hor barrenien Bolinete dau eta Aurreaxeago Muzibar".

- "Etxe osteko burdibide hori hartu eta goazen Mandoainerraino". Mandoaindik Muro eta haren barrenien Bastergaingo baserriak bistan. Hemen aldapan sartu barik

ezkerretik hartuko dogu, Aretxabaleta aldera, baso itxi eta bide lau batetik.

- "Hemen dau pinu piloa, hemen!"

- "Hara! Zapataerrekako basoa, eta hor pinu artean metal iturri ederra dau. Goazen ur apur bat edatera.

- "Beitu! horeskilerazuek. Goazen aurrera, Usitxaraino. Beitu! Hor goian pagadi txi-

ki bat dau, hemen dauen bakarrerenetakue eta haren aldamenien, landatutako arestoixe".

- "Hau da Usitxa?"

- "Bai, eta aurreko hori Galartzako dorretxea. Hemen-dik behera Aretxabaletara jeitsiko gara, eta bariantetik Aretxabaletara sartzeko bidearen errebueltan Oroko bidea hartuko dogu".

- "Eskumatik Larrino alde-

ra joaten da. Guk aurrera egingo dogu, Bedoña aldera". "Ez dau baina aldaparik!"

- "Begira hor behean Aretxabaletako kanposantua eta gainean Elizgarai baserria. Bedoñara hurbiltzen gabitz. Ze ondo zainduta dauzen inguru honetako pinudiak, garbi garbi.

- "Hara hor Iranzabaletako iturria. Geldiune bat eingo dogu".

- "Ze iturri dotorea, arri-loza ta guzti, eta bista ere ez da makalagoa. Begira ixe Arrasate osoa begi bistan".


- "Hemendik, polito-polito aurrera eginaz beheruntz. Hor aurrien zelai bat dau eta bidea alde batera itxita ezker aldetik, iri artean, bidezidor bat zabaltzen da. Hori jarraitu eta hainbat gorosti landare ikusiaz Etxaburu baserriraino helduko gara".

Iramendi goian utzi dogu eta han aurrean kanterapean Solozar

Industrialdeak garai bateko soro eta baserri-etxeak jan ditu, baina bakar batzuk oraindik bizirik dauz.

¡Ibilbidea amaitzeko San Andresko garbitoki paretik pasatuko gara. Sasoi baten, erropa garbitu eta ura hartzen euien ingurukoek.

Oharra: Usitxa = Izurieta.



Patxadan Taldean

**Plus Ultra
taberna**

Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tel. 79 20 57



Erakusketak eta almazena:
Kale Txiki, 3 - behea
Tel.: 77 11 20
Faxa: 77 11 20
ARRASATE

Pavimentos AGR

EGURREZKO AROZTEGIA

Mota guztietako zoruak
Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak
Lehioak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak
Eta abar
MATERIALEN SALMENTA

UGARTE

**Industri
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tel.: 79 83 96 / 79 23 00
Faxa: 793412

■ Horoskopoa

- **Aries** Zertarako prestatzen duzu hainbeste janari? Norbaiti itxaroten ala?
- **Taurus** Gauzak ez dira derrepentean konpontzen. Lasai hartu.
- **Gemini** Egingo duzula esan bai, baina noiz egingo duzu?
- **Cancer** Laster gabonak: opariak, turroia, txanpaina... Ze ondo!
- **Leo** Ogitartekoak jan beharrean txuleta ederra jatea komeni zaizu.
- **Virgo** Alboan duzun altxorra ondo zaindu, bestela...
- **Libra** Inork ez zaitu ulertzen baina izarrak zurekin daude.
- **Scorpio** Ez duzu seriotasuna demostratzen horrela berba eginda.
- **Sagitaris** Burua haizez beteta edukitzea normala da.
- **Capricorn** Noiz egongo zara zerbaitekin konforme?
- **Aquarius** Zu beti bezain fin. Ez zara aspertzen?
- **Piscis** Barre egiteak gizenduko balu, zu benetan..

■ Gurutzegram

1	2		3	4	5	6	7
8			9				
10		11					
12				13			
14			15			16	
17				18	19		
20			21				

JUAN BAUTISTA AGORRIA

Horizontalak 1. Espero ez den bapateko gertaera. 8. Alfabeto grekoko hamazazpigarren letra. 9. Ia. 10. Irrigarri. 12. Denbora-tarte laburra. 13. Argi-izpi. 14. Gelditzeko agindua emateko oihua. 16. Tantaloa. 17. Dardaratu, ikara egin. 20. LAOSeko bokalak. 21. Teinkako egoera.

Bertikalak 1. AEDko antzerki taillerreko irakaslea. 2. Jantzi, bereziki emakumeena. 3. Eguzki. 4. Uniforme militar askoren kolore. 5. Landarea, ukituz hazkura ematen du. 6. Zerbait aurkitzen saiatuz. 7. Arabako udalerrria. 11. Osoa, ezer falta ez duena. 15. Tailandiako istmoa. 18. Kanpo. 19. Infusio mota.

18. Ar. 19. Te.

Bertikalak: 1. Urrutia. 2. Soineko. 3. Eki. 4. Kaki. 5. Asun. 6. Bilatuz. 7. Ekora. 11. Dena. 15. Kra. ratu. 20. Ao. 21. Atezu.


Horizontalak: 1. Ustekabe. 8. Ro. 9. Kasik. 10. Ridikulo. 12. Une. 13. Inar. 14. Tenk. 16. Ta. 17. Ika-

KANPAZAR TAILERRAK

SUZUKI **VITARA**

3 eta 5 ate!

Suzukik bere gaman turbo diesela gehitu du.



Zatoz ezagutzera!!

Tailerrak:

Bizkaia etorbidea, z/g Tel.: 79 41 98

Erakusketa:

Araba etorbidea, 4 Tel.: 79 77 66

“Kukaratxa Motel. Berpiztea” bideoa saritua

Kukaratxa Motel ekipoak sari garrantzitsua jaso du Lekeitioko XIX. Euskal Zinema eta Bideo Bilera Lehiaketan bere “Kukaratxa Motel. Berpiztea” bideoagatik. Gogoratuko duzue, lehiaketaren buelta iragartzeko Arrasateko San Juan Bataiatzailearen parrokiaren sekulako pelikula muntatu zuten. Bideo horretan Unai hilkutxa baten barruan sartu eta Betirtzek ezkonjantzia jarri zuen atso zahar baten karakterizazioaz. Ume mordo bat bildu zituzten aktore lan onena egiten zutenak aukeratzeko. Horrekin guztiarekin grabazio bikaina egin zuen Agustinek, lan handia eman eta bat baino gehiago harrirtuta utzi zuen grabazioa.



Agustin, Betirtze eta Unai dira saritutako bideoaren egileak.

Egindako lanarekin pozik geratu eta Lekeitioko lehiaketara bidali zuten saririk ateratzeko esperantza barik. Sekulako sorpresa jaso zuten

sormenezko arloan eta profesional mailan bigarren saria eskuratu zutela jakitean! Zorionak hirukote eta segi horrela!

Arrasate Irratia FM 107.7

EGUNERO

9.00 Albisteak
9.30 Goizoro magazina:
Datorren asteko gaiak
Oñatiko Turismo
Proiektuaren emaitzak
eta balorazioa,
Santamas Krossa,
Euskal Herriko
akordeoilariak...
14.30 Bixau orduan

ASTELEHENA

22.00 Caravanserai musika saioa.

ASTEARTEA

22.00 Euskal Festa.

ASTEAZKENA

22.00 KK2A

OSTEGUNA

21.00 Adi Egon
22.00 Txerrendantza

OSTIRALA

22.00 KGB informatika saioa

LARUNBATA

9.30 Jailarai umeendako saioa.
11.00 Zoroklasikoak musika klasiko saioa.

■ ATBko asteko programazioa

13 Ostirala	16 Astelehena	17 Asteartea	18 Asteazkena	19 Osteguna	20 Ostirala
13.35 Kukaratxa Motel (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Astebete: Gesaltzako kobaren inguruko IGPa eta Josu Arkauz presoaren egoera.	13.35 Astebete (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Mondrasport	13.35 Mondrasport (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Lotsa Barik Gonbidatua: Joxe Felipe Auzmendi	13.35 Lotsa Barik (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Musika	13.35 Musika (Errep.) 19.10 Kukaratxa Motel 20/20.30/21.00 Berriak 21.00 Kukaratxa Motel	13.35 Kukaratxa Motel (Errep.) 20/20.30/21.00 Berriak 21.30 Astebete



OPIL
OKINDEGIA

DONIBANE-PAPVR
GOZOTEGIA

Inazio Zuloaga, 2 • Tfel.: 79 80 50 • ARRASATE

*Hurbildu zaituz
eta dastatu gure
osi eta pastel
bereziak!*

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta Serrano Doktorea

HAURDUNALDLIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 76 59 39 / 76 59 72 • Fax: 76 25 72



Azkenaldiko eguraldi txarraren eraginez, bota du elur apur bat inguruetako mendi puntetan. Hori bai, argazkiko elurtearekin zer ikusirik ez du izan, orduan majo zuritu zituen eta inguruak.

Argi dagoenez, Leixargarateko aterpetxearen aurrean aterata dago argazkia.

Ezkerrean zutik dagoena Luis Garcia da. Zutik ere, eta biseraz, **Juan Jose Saenz**; bere ondoan, **Jesus M^a Egidazu**. Txapela jantzita duena, **Errasti**, orduan Besaideko idazkari zena; bere ondoan,

plastikoa gerrian jarrita eta hotz aurpegi galantarekin, **Exposito**.

Makurtuta, ezkerrekoa, **Koldo Balantzategi**; erdiko betaurrekoduna, **Imanol Exposito** (hotzitutakoaren anaia), eta erdi-zutituta erdimakurtuta dagoena **Iñaki Mauri**.

Urtea: 1970

Argazkia: Besaide M. E.

Informazioa: Juan Jose Saenz eta Alvaro Arregi.

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuademazioak
Koloretan fotokopiak
Planoen erreproduzioa
Offseta

Ferrerias, 23 • ARRASATE
Tel.: 79 46 62

Sili Sili

Martxa eta estilo
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

AMI oinetakoak



OINETAKOEN AUTOZERBITZUA

Olarte, 9 • ARRASATE • 77 14 65

**PUB
HAIZEA**





ARRASATE ERDIALDEKO
MERKATAL ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

Arrasate erdian, Deba Garaiko merkatalgunerik handiengan, erosketak izen propioa du.



Azaroaren 18tik
urtarrilaren 4ra arte
Arrasate erdiko 100
komertzio eta zerbitzuz
AUTO BAT dohainik
lortzeko aukera ematen
dizute.
Etorri eta egiazta ezazu!!!
Erdialdea bisitatzen duzunean
aparkalekua erabil ezazu.
Denok eskertuko dugu.

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak

UGARTE

ALTZARIAK DEKORAZIOA

ARROZTEGIA



San Juan, 1 (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Telefono eta Faxe: 76 54 91

OPEL VECTRA BERRIA



ARTEA MUGIMENDUAN



SEGURTASUNAREN ARTEA

Vectra berriak berarekin segurtasun ekipamendu berri eta osatuena dakar, **seriean bertsio guztietan**: ABS, tamaina handiko, Airbag mixtoa, Multilink atzealdeko suspentsioa, Opelen pedal atzeratzaile esklusiboak, aldamentetako babes barra bikoitzak, bizitegi berrindartua, tentsore piroteknikodun zinturoiak, urrutiko itxitura zentralizatua, lapurreten aurkako blokeatzaile elektronikoa...

ARTEAREN TEKNOLOGIA

Vectra berria, artea eta teknologiaren arteko konbinaketa perfektua. Opel Ecotec motore berritzaileak bultzatua. Ekonomia, prestazio eta ekologian liderrak. Vko sei zilindrodun 2.5 arekin eta 170 cv.ekin gaina hatzen duten motoreak.

Dieselaren maitaleentzat, turbodiesel bertsioak ekonomia eta prestazioetan erantzun ezinhobea eskaintzen du. Bertsio gehienetan seriean dator trakzioaren kontrol elektronikoa, teknologiaren irakasgai bikainena.


BERRIKUNTZAREN ARTEA

Liluragarria berrikuntzetan eta liluragarria diseinuan. 4 edo 5 atetan eta bere bertsioetan: Base, GL, GT, CD eta CDX. Horrelakoa da Opel Vectra berria. Bere linea esklusiboari esker bere kategorian aerodinamika koefiziente txikiena lortzen du, CX: 0,28. Barrualdeko diseinuan erosotasuna eta isiltasuna nagusitzen dira.

Teknologia eta artearen arreko oreka esistitzen da.

OPEL VECTRA BERRIA.

ARTEA MUGIMENDUAN.

OPEL 

 **TALLERES OLA**

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. **BERGARA** (Gipuzkoa)

Zerbitzu Oficiala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK

Araba Etorbidea, 3.(Edif. Escatu). Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK.